



ETAren amaiera



Hitz egin eta konpondu

argia orain zure eskuko telefonoan ikusgai

Eskuko telefonoarekin eta QR kodeari esker, momentuan bistaratuko dituzu ARGIAko edukiak Interneten

Gustuko duzun artikulu hori lagun bati bidali nahi diozula?
Ezinegona sortu dizun erreportajeari buruz iritzia eman nahi duzula?
Elkarrizketa interesgarri horren bideoa ikusi nahi duzula?
Iragarki batean ikusi duzun produktua eskuratu nahi duzula?

Orain QR kodeak lagunduko dizu. Hona argibideak:



1

2

3

> Non lortu QR kode irakurlea?

Eskuko telefono bakoitzak bere irakurgailu berezia behar du. Hartu sakelekoa eta jaitsi ezazu zeurea! Irakurle ezberdin asko daude. Hemen ARGIAren gomendioak:

- iPhone-erako: Redlaser (www.redlaser.com)
- Blackberry-rako: Beetagg (www.beetagg.com)
- Android-erako: Barcode Scanner (www.market.android.com)

- 1 ARGIA astekariko artikulu bakoitzaren bukaeran QR kode bat aurkituko duzu.
- 2 Eskuko telefonoan jaitsi berri duzun kode irakurlera sartu eta argazki makina baten moduan, QR kodearen aurrean jar ezazu honek edukia irakurri arte. Adi, garrantzitsua da kodea enfokaturik erakustea.
- 3 Prest zaude zure mugikorrean ARGIAz gozatzeko!



Ausar zaitez QR kode hau irakurtzera eta argia.com berritua ezagutuko duzu!





Azaleko argazkia:
LUIS JAUREGIALTZO
/ARGAZKI PRESS
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produksioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



• NON ZER •

2011ko urriaren 30a, 2.296. zenbakia

Asteko gaia

• ETaren amaiera.

• **Analisia.** Gobernuen txanda: eman bidea elkarriketari.
XABIER LETONA / 4

• **Gatazkaren ondorioak eta bakearen aukerak.**
URKO APAOLAZA / 8

• **Iritziak.** PELLO ZUBIRIA KAMINO, JOXEMARI OSTOLAZA / 12

• Elkarriketak:

Iñaki Esnaola: «Epe laburrera emaitzak espero baditugu, akabo». MIKEL ASURMENDI / 14

Pernando Barrena: «Adiskidetzeko bide luzea landu behar da aurretik». MIKEL ASURMENDI / 15

Brian Currin: «Ziur nago PPK jarrera eraikitzailea izango duela gobernura heltzean». LANDER ARBELAITZ / 16

Gaiak

• Ehorzketa ohiturak bizirik Nafarroa Beherean.
NOEL ELORGA / 18

Iritziak

• **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 21

• **Ttakun (h)errenka** Iraultzara jolasean. UXUE APAOLAZA / 22

• Teologoa, ekonomialaririk hoberena. FERMIN ERBITI / 23

• **Hiruko txikian** Pisalo, pisalo. JOXEMARI OSTOLAZA / 23

• Sakontasunak ba ote du jaberik? DABID ANAUT / 24

• **Txandan** Rangoa. ANDONI MUJICA / 24

• **Zirtak** Hiltzaile-sena. JULEN GABIRIA / 25

• **Bertso berriak** Amaiurri jarriak. JULIO SOTO / 26

Erdiko kaiera

• **Antzerkia.** Ke arteko kantua. OIER GUILLAN / 27

• **Kulturgintza.** Beasaingo ruralismo posmodernoa.
UXUA LARRETXE / 30

• **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

• **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 34

• **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 35

• **Ezpalak** JON TORNER / 36 • **Abarrak** MIKEL GARCIA / 37

• **Osasuna** JABIER AGIRRE / 38

• **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39

• **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

• **Oinarrizko errenta.** Eskubide eskean *oles* egitera behartuak.
URKO APAOLAZA / 41

• **Sho Hagio, soziologo japoniarra:** «Euskal janaria, musika eta kirola dira japoniar gazteei interesatzen zaizkienak».
GONTZAL AGOTE / 44

• **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

• **Net Hurbil** Aberatsek daukate jende txiroak ez ikusteko antzea.
PELLO ZUBIRIA / 48

Editoriala

• Bake garaia, herriaren garaia. / 50

ETAren amaiera

Gobernuen txanda: eman bidea elkarrizketari

ETAk borroka armatuaren behin betiko amaiera iragarri zuenetik katarsi kolektibo gisako bat bizitzen ari gara Euskal Herrian, ez leku denetan intentsitate berarekin eta ez arrazoi berberengatik, baina katarsia. Eta, gutxienez, bada puntu bateratu bat kultura eta sentsibiltate politiko guztietan: bakea. Bakea edukiz eta egunerokoan nola hornitu, hori da orain euskal gizartearen erronkarik handiena.

XABIER LETONA

GRINAZ DESIO ZEN BAKEA Euskal Herrian, behar sakona zen eta hala hartu da ETAren erabakia, hala eskertu da.

Bakeak ikuspegi politikoak adinako amaponteko ditu, baina funtsean eta une zehatz

honetan zera esan gura du: ETAk ez duela hilko, lehergailurik jarriko, zerga iraultzailerik eskatuko, mehatxu egingo... Ez duela inor sufriaraziko bere helburu politikoak lortzeagatik. Eta bakeak esan gura du presoak etxe-

Historiarako data: 2011ko urriaren 20an ETAk jarduera armatuarekin amaitu zuela iragarri zuen.



ratuko direla, iheslariak, etakideak... Sakabak-
naketarik ez dela izango eta torturarik ere ez;
Batasunakoak, Segi edo Askatasunekoak ez
direla espetxeratuak izango beren jardunaga-
tik... Askoz gehiago ere esan gura du bakeak,
baina funtsean arrazoi horiexegatik txoratu
dira orain herritarrak, oraindik ere dena gau-
zatu ez bada ere, orain begien aurrean ikusten
delako.

Harritzarra kendu du gainetik euskal gizar-
teak ETAren iragarpenarekin, zama itzela.
Ikuspegi pertsonaletik aztertuta haren meha-
txatuek nagusiki, baina politikotik begiratuta
ezker abertzaleak bereziki eta
abertzaletasunak oro har.
Orain, gatazkaren ondorioak
bideratu behar dira lehenik eta
ondoren arazo politikoak. Eta
azken asteetako gertakizunekin
—nagusiki Donostiako Nazioar-
teko Konferentzia—, arrazoi
asko daude pentsatzeko biak
lortuko direla, ibilbide korapila-
tsuaren ondoren, baina erdietsi-
ko direla.

Horiekin batera, eta ondoren, biktimen
gaia jorratu beharko da serio eta sakon, ertz
guztiak ukituz eta bakoitzak bereak aitortuz.
Biktima, sufrimendua, enpatia... Mina aitortu
gabe nekez eraiki daitekeelako ezer justurik.
Min horri aurrez aurre begiratu barik, samu-
rrago eror daitekeelako zulo berean. IRAK
2002. urtean egin zuen barkamen eskaera,
Gobernu britainiarra bere bidea egiten ari da
oraindik.

ETAren historia eta gainbehera

Mende erdiko joan-etorriak behar izan dira
gaur egungo egoerara iristeko, eskolan izaki
bizidunei buruz irakasten den bezala: jaio,
bizi eta hil. Horixe bera gertatu zaio ETARI
ere, xomorro txikienari edo elefante handie-
nari gertatzen zaion gauza bera. Ikuspegi
politikoen adinakoa da bere historiaren ira-
kurketa. Inozoa litzateke pentsatzea hiruzpa-
lau paragrafotan konta litekeen erakunde
armatuaren historia, baina hor dira 2011ko
urriaren 20ra iristeko klabe guztiak. Arakatu
eta interpretatu egin behar, hori guztia eta
hori besterik ez.

ETA frankismoaren gordinean jaio zen eta
euskal erresistentziaren sinbolo bilakatu zen,
Burgosko Prozesua izan zen ETAK zuen
babesaren erakuslerik argiena, seguruenik ez
denak jarduera armatuaren alde zirelako,
baina bai gehienak Francoren aurka zirelako,
eta militante epaitu haiek protestaren katali-
zatzaile zirelako.

ETAK indartsu bukatu zuen frankismoa
eta indartsu sartu diktadoreak ondo baino

**Zeren eta, borroka armatua orain
ezker abertzalearen helburu
zehatzak lortzeko jadanik akuilu
ez bada eta oztopo bada, zergatik
ez zen horrela Lizarra-Garaziko
sasoian?**

hobeto abiarazi zuen trantsizio politikoan,
Espainiako demokrazia berrian. Ezaguna den
moduan, baina, ez dago ETA bakar bat eta
egoera politikoa aldatu ahala ETA bera ere
aldatzen joan zen (ETA V-ETA VI, miliak
eta polimiliak...). Paradoxikoki, seguruenik
1977tik 1990era artekoa izan zen ETAren
garairik indartsuena: militante gehien, jardue-
ra armatu gogorrena, ENAMen egituratze
politiko sendoena, eta herritarren sektore
baten sostengu oso tinkoa.

Ezker abertzaleak garai hartan erabat
sinesten zuen bere helburu politikoak —auto-
determinazioa eta lurraldetasu-
na— lor zitzakeela eta borroka
armatuak horretan laguntzen
zuela. Ondorio teknikoak,
zeresanik ez, berehala konpon-
duko ziren akordio politiko
nagusiak negoziatu ondoren.
Eta Aljerren gauzatu zen lehen
negoiazio ahalegin sendoa,
porrot egin zuena eta ETA bera
ere beste garai batean sarrarazi

zuen. Aljerrekoaren ondoren, ezker abertzale-
an izan zen jada borroka armatua uzteko
ahalegin sendoa, “Azkoiti bidea” moduan
ezagutzen dena eta HBn Iñaki Esnaolaren
kanporatzearekin amaitu zena.

90ekoa negoziazioa gauzatua behar zene-
koa izan zen eta gauzatzen ez zenez, presioa
handitu zen: sufrimenduaren sozializazioaren
garaia izan zen, Oldartzen garaia ezker aber-
tzalearen baitan. Gregorio Ordoñez PPko
zinegotziaren hilketak inflexio puntu esangur-
atsua ekarri zuen, bi norabidetan segurue-
nik: batetik, kargu politikoen aurka joz ETAK
jauzi esanguratsua eman zuen; baina horrek
guztiak, halaber, ezker abertzalean zuen sos-
tengu eta zilegitasun galera ekarri zion aldi
berean. ETAren aurkako indarrek, gainera,
Ajuria Eneko Itunetik aurrera ETAren aurka-
ko jarrera gizarteratzea lortu zuten, ezker
abertzalearen isolamendua areagotuz. Miguel
Ángel Blanco Ermuko PPko zinegotziaren
bahiketa eta hilketa (1997ko uztaila) izan zen
garai horren gailurra.

Berriz ere, alabaina, argi zegoen ikusten
zena eta errealitatea bi zirela, ETA eta
ENAM osoa inoiz baino garaituagoak eta
isolatuagoak ziruditean eraiki zen Lizarra-
Garaziko Akordioa, 1998ko irailean. Lehen-
biziz 40 urtetan euskal gizarteak gatazkaren
amaiera sentitu zuen bere baitan. Ez zen hala
izan eta zartakoa itzela izan zen, bereziki
ezker abertzalearen baitan. Ondorioz, HBk
lehen zatiketa serioa izan zuen eta Aralar
sortu zen. ETAK jarduteko indarra erakutsi
zuen berriz ere, baina bere legitimazio eta
sostengu mailan gainbehera berri bat ezagutu

zuen, eta berarekin sortu berri zen Batasunak ere bai.

Lizarra-Garaziko porrotaren ostean ezker abertzalearen baitan asko zabaldu zen borroka armatua alboratu beharra, bai bere ingurune sozialean, bai militantzian eta baita buruzagi askorengan ere. Eta horren ondorioz, lehenbiziz bere historian, 2004an ETAk uko egin zion eduki politikoak negoziatzeari, Anoetako ekimena eta bi mahaien proposamen ospetsuari bide emanen.

Gero ikusi zen, 2006ko negoziazio saioan hori ez zela guztiz horrela eta ETAk ere erabaki nahi zuela Batasunak Loiolan EAJ eta PSerekin negoziatzen zuen hartan. Eta bai erabaki zuela, Loiolako saioa hankaz gora botatzeraino. Ez zen porrot haren errudun bakarra izan, baina bai nagusietakoa.

Baina errautes haiekin sortu da oraingo Fenix txori hau, ETAk bere jardura armatua ren amaiera iragarri dueneko. 2006tik aurrera ezker abertzaleko zuzendaritza politikoaren adar batek erabaki zuen estrategia armatuari amaiera eman behar zitzaioela. Adar horretako parte bat ezagutzen dugu dagoeneko, Arnaldo Otegi, Rufi Etxeberria eta Rafa Diezek gidatu dutena, baina seguruenik aurrerago ezagutuko ditugu ETaren baitan prozesu hori lagundu dutenena. Emaiza benetan erabakigarria izan da: lehenbiziz ezker abertzalearen historian bere adar zibila militarari gailendu zaio eta borroka armatuaren amaiera ekarri du.

Garaile eta garaituak

Ikuspegi militar soil batetik begiratuta, badi-rudi irakurketa garbia dela. ETAk ez du lortu negoziatzea lurraldetasuna eta autodeterminazioa. Estatuak garaitu du eta listo, edo ñabardurekin esanez, behartu du amaiera ematera eta kito. Aurreko paragrafoetan, ETaren gainbehera lauzpabost pauso handitan deskribatu den moduan, ez da aipatu Espainiak –Frantziaren ezinbesteko laguntzarekin– urrats horietako bakoitzean biziki sendotu zuela bere estrategia errepresiboa. ETaren aurkako eraginkortasuna gero eta handiagoa zen, baina Estatuaren aldaketa estrategikoa ezker abertzale osoaren aurkako hesia ixtearena izan zen. Ilegalizazioaren aroa izan da, oraindik itxi ez dena; “dena da ETA” erasoaldi itsuaren zigilupeko garaia.

Baina ikuspegi politikotik begiratuta, garai-penaren baieztapen hori ez da horren garbia, nagusiki ezker abertzaleak berak eman diolako buelta tortilari eta gainbehera zena arrakastaren bidean jartzea lortu duelako. Bitarte-

koak balira garrantzitsuena, ezker abertzalearen jardunak askotan irudikatu duen moduan, orduan porrotaz hitz egin zitekeen bai, baina garrantzia helburuetan jarrita ezker abertzaleak ez du bere burua garaitua ikusten.

Eta nola ikusiko du bere burua garaitua, berak –beste batzuekin batera– bultzatutako estrategiak azken hauteskundeetan Bilduri 315.000 boto ekarri badizkio?

Bestelako kontua da ea emaitza hauetarako halako bidaia beharrezkoa ote zen, baina horretarako perspektiba historikoa beharko da eta, seguruenik, euskal gizartean orain arte izandako ikuspegi anitzten adinako irakurketa izango da gerora ere. Iraganean izan diren borroka armatuari buruzko eztabaida guztiak islatuko dira irakurketa historikoan ere, bai eraginkortasun politikoari dagokionez eta baita eremu etikoari dagokionak ere.

Eta nola ikusiko du ezker abertzaleak bere burua garaitua, berak –beste batzuekin batera– bultzatutako estrategiak azken hauteskundeetan Bilduri 315.000 boto ekarri badizkio?

Zergatik orain eta ez Lizarra-Garaziko garaian?

ETAren desagertzea gauzatzen bada ere, Euskal Herriko arazo politikoa ez da hor bukatuko eta elkarrizketa politiko zabal eta sakonak beharko dira irtenbide adostua erdiesteko. Emaiza zein izango den ikusgai dago, etorkizuna egunez egun egiten ari da eta. Aurrera egin ahala begiratu beharko da atzera, azken 50 urteetako historian dugulako zer ez dugun errepikatu behar.

Ezker abertzaleak hamarkada hauen irakurketa sakona egin beharko du, ikuspegi kritiko sakonez. Eta hori egin beharko du, bate-tik euskal gizarteari zor diolako irakurketa kritiko hori, eta bestetik, hori gabe bera ardatz den ezker abertzale anitz eta zabal horren etorkizuna hankamotz legokeelako. Historiak eta memoriak 1512an gertatu zena arakatzeko eta ikasteko balio badu, are gehiago balio behar du iragan hurbilari kosk egiteko.

Zeren eta, borroka armatua orain ezker abertzalearen helburu zehatzak lortzeko jadanik akuilu ez bada eta oztopo bada, zergatik ez zen horrela Lizarra-Garaziko sasoiari? Eta zergatik ez Aljerrekoaren ondoren? Eta zergatik ez behin Gernikako Estatutua onartu ondoren? Eta hala, bakoitzak erabaki dezake noraino eraman galdera atzera, noizbait ETARI adostasunez, begirunez edo ulerkortasunetik begiratu badio behintzat. Eta asko dira halakoak euskal gizartean.

EAJk eta beste batzuek hasieratik ikusi zuten ezetz, baina beste herritar asko garai desberdinetan jaitsi dira borroka armatuaren gurditik; eta jeltzaleen edo beste batzuen kasuan ere, garai desberdinaren aroan oso



LUIS JAUREGALITZO / ARGAZKI PRESS

Urriaren 22ko Bilboko manifestazioan, Gernikako Akordioaren bultzatzaileek konponbidea eskatu zuten Bilboko kaleetan.

begi desberdinez begiratu izan zaio ETAreneko fenomenoari.

Egungo diskurtso bakarraren lainoek iraganeko eguzki izpi ugariak estaltzen dituzte, baina euskal herritarrek garaian garaiko betaurrekoekin begiratu izan diote ETari eta honek suposatzen zuen guztiari. Trantsizio garaian Euskal Herriko plaza beteetan ozen kantatzen zen “*Voló, voló Carrero voló*” hura izan daiteke adibide esangratsuarenetakoa.

Gatazka

Hemendik 50 urtera 2011ra begiratzen dutenean, euskal historialariek ez dute zalantzan jarriko hemen gatazka armatu bat izan zenik. Gatazkaren definizioan izango dira komeriak, orain bezala. Gatazka armatua dago pertsona batzuek helburu politikoak lortzeko armak hartzea erabakitzen dutenetik, areago populazioaren zati baten sostengua izan dutenean, eta areago Estatuak bere tresneria errepresibo osoa erabili behar izan duenean pertsona armatu horiei erantzuteko.

Gatazka hori ukatzeak ez du errealitatearen zentzurik, Europa eta mundu mailan argi daukate: “Europako azken gatazka armatua” da. Horregatik ari dira nazioarteko aditu garrantzitsuak elkarrizketa eta erraztatzaile lanetan, ezaugarri desberdinekin baina munduan dagoen gatazketako baten moduan ikusten dutelako.

Euskal Herrian ez bezala, horietako inork ez du jarriko zalantzan Espainiaren izaera demokratikoa; horietako gehienek ETArene-

gandik baino gertuago ikusiko dute beren burua Espainiako Gobernutik eta ETAreneko jarduna Zapateroren irmotasun berarekin arbuatuko dute... Baina “Europako azken gatazka” bideratzeko aukera atzamar artean ikusten dute eta egoera baliatu nahi dute.

Konponbidearen atzean dagoen bitartekaritzaren ingeniari lan erraldoiaren erakusle da Donostiako Nazioarteko Konferentzia. Argi ikusi da Espainiako Gobernuaren bedekapenarekin egin dela orain arteko bidea, eta mitinetan Rubalcaba eta Patxi López dagoeneko hasi dira jokaldia saltzen. Sozialisten familian izen bat nabarmendu da bereziki, Jesus Egiguren, eta kanpotik ikusita ez da ulertzen bera sukalde lanean izanda eta zekiena jakinda nola bere alderdiak jokatu duen jokatu duen moduan, bereziki Patxi López lehendakariak.

Orain PPren txanda da eta hor zalantza gehiago dira, baina azken asteetan Mariano Rajoyk erakutsi duen jarrera zuhurak arazoari adarretatik helduko dion inpresioa elikatu du. Oraingoan bai, oraingoan gaitza da irudikatzea hau gaizki atera litekeenik. Denbora beharko da, baina logikoena da pentsatzea Espainiako Gobernu kateatuko zaiola egoera berriari. Legearen barruan, baina bake prozesuaren testuinguruan. Egin beharrekoa nola jazen den, hori izango da Rajoy-ren gakoetakoa. Borondatea, nazioarteko laguntza eta denbora, jaki horiekin gaur eta hemen bakea egiten da. ■



Gatazkaren ondorioak eta bakearen aukerak

Hasiko al ditu Espainiako Gobernuak ETarekin elkarriketak? Galdera horixe dabil denen ahotan. Nazioarteko ordezkarien deklarazioei eta PSOE eta PPren jarrera nagusiari erreparatuz, badirudi baietz. Baina zein arlotan has daitezke neurriak hartzen? Kartzeletako eta auzitegieta egoera gainbegiratzea nahikoa da, jabetzeko terreno aski zabala dutela Rubalcabak zein Rajoyk jokoan sartzeko.

URKO APAOLAZA

Argazia: Argazki Press

GATAZKAREN ONDORIOAK. Hitz horiek erabili zituzten Donostiako Adierazpeneko bigarren puntuan ETArek eta Espainiako Gobernuaren artean hitz egin beharrekoa zehazteko. Anoetako proposamenen ere aipatzen zen bigarren errail hori (desmilitarizazioa, presoak eta iheslariak, eta biktimak); baina ordukoan, ETak armak utzi aurreko negoziazio baten ondorio lirateke. Oraingon, ez omen da ezer negoziatu, ez da kontzesiorik egin –Rajoyk berak adierazia–, ETak armak utzi ditu eta kito. Brian Currinek Aieteko konferentziaren bukaeran esan zuen ETArek amaiera etorri gero, seguru zegoela gobernuak berandu baino lehen erantzungo zutela eta hitz egin beharko zutela segurtasun kontuez, armen dekomisioaz eta abar. Kofi Annan eta Tony Blair-en inplikazioa ere esanguratsua da; azkeneko horrek *The New York Times*-en argitaratutako artikuluan berretsi egin du gobernuak egindako elkarriketa eskaera eta hitz egin beharreko puntuak zehaztu ditu, Ipar Irlandako elkarriketak eredu hartuta. Nazioarteko jarrera hori ikusita, iduri luke “alde tekniko” horretan Zapaterok konpromiso batzuk hartu dituela, publikoki onartu ezin duen arren.

Ez da gutxi Espainiako Gobernuak arlo horretan egin lezakeena, azken urteetan ikaragarri estutu baitu torlojua, lege oso zalan-tzagarriak diren neurriak hartuz eta guzti. Nahikoa luke legea aplikatzearekin *de facto* preso askoren egoera izugarri arintzeko, adibidez eritasun larriak dituzten presoena. Oraindik gauza mordoa jorratu behar da normalizazio eta bakerako bidean; Gernikako Akordioan egiten diren hainbat eskaera errepasatzea nahikoa da jabetzeko zein bide luzea dagoen urratzeko: inkomunikazioaren amaiera, auzi politikoetan zigortutakoen errebisioa,

Alderdien Legea indargabetzea, amnistiarako bidean urratsak ematea presoan... Batzuk urrun ikusten dira oraindik, baina badaude hainbat gauza zalaparta handiegirik gabe egin litezkeenak, eta azkar asko gainera, A-20ko hauteskundeetara itxaron gabe.

Ilegalizazioaren lokatzetatik ateratzeko ordua

Ezker abertzalearen sigla ezberdinen ilegalizazioaren atzean, Gobernuaren bultzada egon da. 2002an Batasuna ilegalizatu zenetik, Estatuko Fiskaltzak behin eta berriz inpugnatu eta auzitan sartu izan ditu hauteskundeetara aurkeztu nahi izan diren alderdiak (AuB, Herriarren Zerrenda, Aukera Guztiak, Abertzale Sozialistak, ANV, D3M...). Gogoratu besterik ez dago, su-eten betean, Bilduren kontra fiskalak erakutsitako gogortasuna, udal eta foru hauteskundeetan aurkeztu ez zedin bide guztiak agortzeraino. Alderdien Legea eta Hauteskunde Legea ere behin baino gehiagotan aldarazi dute, ezker abertzaleak erakundeetan egoteko zirrikiturik txikiena izan ez zezan. Ilegalizazioek epaitegien bermea izan duten arren, erabaki politikoak izan dira, justiziaren jantziaren mozorrotuta.

Duela aste batzuk, asko eta asko ziur zeuden Bildurekin foru eta udal hauteskundeetan gertatutako eszena berdinak ikusiko genituela A-20ko Espainiako hauteskundeetan indar subiranisten koalizio berriarekin: pertsekuzio judiziala eta *in extremis* erabakitako epaiak. Bateragune auziaren sententziak giro hori zetoze iradokitzen zuen, eta Conde-Pumpidok Sortu legalizatzeak auzian hartutako jarrerak ere –“ETA existitzen den bitartean Sortu ezingo du legala izan”, esan zuen fiskal buruak– konfrontazio garaia gogorarazten zituen. Amaier aurkeztu zenean, tentuz azter-



Presoen hurbilketaren alde 2011ko urtarrilean Bilbon egindako manifestazio erraldoia. Preso politikoen egoera izango da gatazkaren "alde teknikoaz" hitz egin beharreko puntu nagusietakoa.

tuko zutela esan zuten Estatu aparatuek; biktimen elkarteek eta PPK berriz, arrapaladan eskatu zuten haren kontrako neurriak hartzeko. Inpugnazio hotsak berriz ere. Baina hurrengo asteetako gertakariak erabat aldatu dute testuingurua: euskal presoen kolektiboak Gernikako Akordioarekin bat egitea, nazioarteko egiaztatze batzordearen osaketa, ETaren agiria egiaztatzea onartuz, Ekin-en disoluzioa, bake konferentzia, ezker abertzalearen eskaera ETari armak uzteko, eta ETak armak uztea. Ondorioz, diskurtso ilegalizatzailea erabat zapuztuta geratu da eta dena ondo bidean, Amaiurrek ez du inolako arazorik izango hauteskundeetan aurkezteko. Ezker abertzaleak, beraz, hanka bat jada atera du lokatz illegaletatik, beste hanka ateratzea falta zaio orain, Sortu alderdia.

Sortu legezko izan edo ez Konstituzio Auzitegiaren eskuetan dago momentu honetan. Lehendik ere Sortu ilegalizatze argudioak hari ahul batetik zintzilik bazeuden, ETaren amaierarekin hari hori jada hautsi egin da. Beraz, ez dirudi epaimahaiak Sorturen kontrako epairik kaleratuko duenik, baina alderdi berriak jadanik ez du aukerarik izango A-20ko hauteskundeetan parte hartzeko.

'Parot doktrina'renak egingo al du?

ETak armak betiko utzi ditu, baina askoren iritziz bere desagertzea ez da gertatuko hainbat kontu konponduta utzi gabe, tartean preso politikoen bizi baldintzak arintzea.

Ez da gutxi Espainiako Gobernuak egin lezakeena, azken urteetan ikaragarri estutu baitu torlojua, lege oso zalantzarik diren neurriak hartuz eta guzti

Espainiako eta Frantziako gobernuek kartzetako politika erabili izan dute presionatzeko. Azkeneko urteetan presio hori gehiagora joan dela salatu dute presoen senideek gainera. *Parot doktrina* da horren adibide. 2006an Auzitegi Gorenak Henri Parot presoak jarritako helegite bat atzera bota zuen eta indarrean jarri zuen zigor-erredentzioak zenbatzeko modu berri bat. Ordura arte, erredentzioak lege kartzelan igaro zitezkeen 30 urteei aplikatzen zitzaizkien, baina geroztik zigor bakoitzari aplikatzen hasi zitzaizkion, presoak ehunka urtetako kartzela zigorra izanik ere. Ondorioz, 1973ko Kode Penalarekin epaitutako presoek 30 urte arte igaro ditzake kartzelan, zigor gogorrak jaso badituzte.

Momentu honetan hamarnaka lagunek egon beharko lukete kalean baina doktrina hori aplikatuta preso segitzen dute. Horieta askoren helegiteak Konstituzio Auzitegian onartu dituzte eta aztergai daude. 2011ko maiatzean *El País* egunkariak albiste kaleratu zuen, Konstituzionala *Parot doktrina* bertan behera uzteko deliberatzen ari zela esanez. Baina auzitegiak ukatu egin zuen halakorik eta kasu bakoitza banan-banan aztertuko zuela azaldu zuen. Lehenengo 14 helegiteak uztailan aztertu behar zituen, baina azkenean irailera arte atzeratu zuen auzia eta oraindik ez die erantzunik eman. Bestalde, duela gutxi Fiskaltza doktrina horren kontra azaldu da, Joseba Artolaren babes helegitearen kasuan. Konstituzionaleko mugimenduek

eta fiskaltzaren irizpide aldaketak doktrina baliogabetzeko norabidean jarri dute iparrratza.

Sakabanaketa, Gobernuaren erabaki politikoa

Gaur egun 703 euskal preso politiko daude eta horietatik 35 baino ez daude Euskal Herriko kartzeletan –EPPKtik kanpo dauden Langraitzeko 20 presoak barne–. Behin eta berriz salatu izan da presoak ez ezik, haien senideak ere zigortzen dituela dispersioak. Batez beste astero 1.200 kilometrotik gora egin behar izaten dituzte senide eta lagunek, horrek dakartzan ondorioekin (istripuak, gastuak, osasun arazoak...). Aljerreko negoziazioen porrotaren ondoren ekin zion Felipe Gonzálezen Gobernuak sakabanaketari, presoan artean disidentziak eragiteko asmo argiaz. Urte batzuen buruan baina, garbi geratu zen neurri horrek ez zuela eraginik eta azken helburua “presoa bera deuseztatzea” zela, senideen esanetan. Hargatik, presoak Euskal Herrira hurbiltzea senideen eta euskal gizarteko eremu zabal baten aldarrikapen nagusietakoa izan da.

Sakabanaketa ez da inolako legetan oinarritzen, Gobernuak arbitrarioki harturiko erabaki politikoa da, eta zentzu horretan, behin eta berriz erabili izan du arma politiko moduan. Esaterako, Aljerreko zaputzaletaren hurrengo urteetan Gobernuak oso estu hartu zituen presoak sakabanaketaren bidez; aldiz, Lizarra-Garaziko su-eten garaian, Aznarrek hainbat preso Euskal Herrira hurbilduz egin zituen keinu ahul batzuk.

Egun batetik bestera har litekeen erabakia den arren, ez dirudi presoan hurbilketa berehalakoan gertatuko denik. Senideentzat aldarrikapen ezinbesteko bihurtu den bezala, aldarrikapen historikoa eta sinbolikoa ere bada, eta bai biktimek bai PPko sektore kontserbadoreenak “kontzesio” gisa ikusiko lukete hurbilketa masibo bat –“beti egongo naiz presoan hurbilketaren aurka” zioen Mari Mar Blancok, Miguel Ángel Blancoren arreba eta PPko senatariak–. Hortaz, logikoena da hurbilketa epe ertainean eta pixkanaka gertatzea.

Zigor Kodeak eta graduak

1995ean Zigor Kode berriarekin eta 2003an errebisioarekin, ETAko presoek zigorrak eta baldintzak gogortzeko neurri bereziak hartu ziren. Hala, espetxealdi maximoa 30 urtetik 40 urtera igaro zen eta erredentzioen bidezko murrizketak desagertu egin ziren. Gainera,

baldintzapeko askatasuna lortzeko, terrorismo delituagatik kondenatutakoek beste presoek baino denbora gehiagoz egon behar dute kartzelan –zigorraren hiru laurdenak– eta kalera ateratzeko indarkeria gaitzetsi eta euren biktimei barkamena eskatu behar diete. ETAren amaierarekin baldintza horiek zein egoera legetan geratzen diren aztertu beharko litzaiteke. Bestalde, egun Espainiako Estatuan 337 preso daude lehen graduari, ia egun osoa ziegatan sartuta. Abian jarri den bake prozesuak presoan bizi baldintzen normalizazioa eta espetxe barruko gatazkak arintzea ekarriko gero, horietako askok bigarren graduari igarotzeko aukera izango dute eta hainbat onura izango lituzkete (ziegatik kanpo ordu gehiago, espetxetik kanpora irteteko baimenak...).

Iheslariak, paperak eta bermea

Ehunka dira Euskal Herriko kanpo bizi diren iheslari eta errefuxiatuak: Kuban, Venezuelan, Mexikon, Urugain, Belgikan... Horietako asko duela hamarkada batzuek alde egin zuten eta haien delitua preskribitua legoke; beste batzuek ez dute haien kontrako auzirik. Testuinguru berrian Euskal Herrira itzultzea xamurragoa izango dute, baina horretarako Gobernuaren bermea eta kasu batzuetan etxera itzultzeko “paperak” ezinbesteko dituzte, Anai Arteak elkarteak berriki azaldu duen bezala.

Barkamenaren prezioa, biktimak eta berradiskidetzea

Zalantzarik gabe, damua eta barkamena hitzak behin eta berriz entzungo dira “gatazkaren ondorioak” konpontzeko prozesu luzean. Biktimen elkarrekin argi dute presoek damua eta barkamena erakutsi behar dutela haien aldeko neurriak hartzen hasteko, legeak ere hala dio gainera. Baina barkamen eskaera ez litzateke “garaituen eta garaitzaileen” diskurtsoaren ikuspegitik exijitu behar, berradiskidetzarako bidean jarrera funtsezkoa delako baizik. Jonan Fernandez Baketik-eko zuzendariak LARRUN-en argitaratutako artikuluan zioen barkamenak borondatezkoa izan behar duela, ez dela berradiskidetze-prozesua abian jartzeko ezinbesteko baldintza, baina bai erabakigarria.

Biktimak dira bizi izan dugun gatazka honen ondorio mingarriena, alde batekoak zein beste-koak. Donostiako Adierazpenak haien aitortza eskatzen du, “errekonziliazioaren indarra gorrotoan oinarritutako ohiturei nagusitzean dator” dio adierazpenak. ■



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak

DANI BLANCO



Aro berri on

Pello Zuluñda Kamino

ARGIAKO ZUZENDARIAREN ALBOKOA

»
Kontakizuna?
Bat? Bitan
banatzen den
bakarra?
Harritzen nau
herenegun arte
erlatibismo ia
osoaren
apologista
izandako
askoren
manikeismo
zaharberrituak
»

O rduan seihilabetekari zen LARRUNen arduradunei Antton Ibarguren abokatuak 1987-88an behin baino gehiagotan aipatu zien interes handikoa izango zela negoziaketaz ale berezi bat egitea. Negoziaketaz, “n” larriarekin. Urteak behar izan nituen ohartzeko ETA eta estatuaren artean negoziatu beharretik harago zihoala gizon jakitun haren asmoa: nola negoziatzen da, zein dira negoziaketa baten osagaiak. Aljerreko ahalegina heldu zen laster, eta Ibargurenek ezin zuen ezkutatu bere haserrearen ondorengo LARRUNeko bazkari batean azkenekoz ikusi genuenean (Himalayan galduko zuen bizia berehala), “hanka sartu diagu eta larrutik pagatuko diagu”. 2011ko urriaren 20a arte, hogeita bi urte.

Nork zer zertarako non nola noraino (eta zergatik!) negoziatzearen inguruan pasatu zaizkigu gutxienez 1984tik gaurdainoko urteak. Guidoni enbaxadoreak deitu duela ultimatum emateko, eta ondoren estradizioak, GAL eta kontakto hartaz gehiegi zekien bat zutela, Santi Brouard. “*Testigo negativo*” direlakoek horren arriskua dute beti, Juan Jose Etxabek eta Juan Felix Erizek aurretik igarri zioten bezala. Aljerrekoa gero, eta tori berun bana, Josu Muguruza eta Iñaki Esnaola. Lizarra-Garazikoaren eta Loio-lakoaren bihamunetan, espetxera kristo guztia. Egunsenti berria zabaldu behar zuen halako batean. Hastea baino konplikatuagoa zen bukatzea. Argi ibili oraindik.

Datozen hilabeteetarako jokoan dagoena omen da joandako urteon kontakizuna, ditxosozko “relatoa”. Kontakizuna? Bat? Bitan banatzen den bakarra? Harritzen nau herenegun arte erlatibismo ia osoaren apologeta izandako askoren manikeismo zaharberrituak. Ez dagoela egia bakar bat, egia asko, nor adina egia edo esplikazio, denen artean kaleidoskopio famatu anitza osatzen omen zutena... orain “kontakizuna” aldarrikatzeko.

Anitzek kontatzeko dauzkaten egia hain ezberdinak jostea edo gutxienez entzun eta erregistratzea izan beharko luke aurrerantzean helburu nagusietako bat. Jakinda denak ez ditugula jakingo eta lekukotasunik utzi nahiko ez dutela batzuek. Egia guztiak esatekoak balira, ez balute minik egingo... Alde bateko eta besteko eta haragoko askoren egia entzun-irakurritu gaude, beste askorenak falta dira.

Hala ere, atzera baino gehiago aurrerantz jokatuko da Euskal Herriaren egoera berria. Zer zenbat aldatuko den ez jakin arren, badakit zer nahiko nukeen azkar kanbiatzea.


Bata. Herri Batasuna eta KASEko jendeak –pixkanaka hasi beharko dugu berriro egiazko letrak usatzen– gizartearen egituretarako eskatzen dituzten demokrazia parametroak etxean behar dituzte aplikatu, eta fite. Egitura hierarkizatu piramidalak ETAk armak isiltzea lortuz burutu du bere zerbitzurik onena, paradoxikoki, egitura irekiago batekin ezingo zuten. Nekeza izanen dute barne aldaketa, 1983an abandonatutako instituzioetara bihurtu (eta zer nolako arrakastaz!) direnean, ilegalak izanik gainera, baina egin beharra daukate. Bestelako ereduak aspalditik daude.

Eta bia. Bukatu tortura eta ya. Zero tortura. Ez baldin bagara gai Espainiako eta hemengo polizien jokabidea gutxienez Europako beste edozeinenarekin homologarazteko, gainerako helburu politikoak edo fantasia handiusteak edo demagogia hutsalak dira. Torturak egon behar du eztabaidaren erdian, ezabatu dutela bermea egon arte.

ETAk armak isildu ditu gure mendietan eskopetak tiraka hasiak diren garaian, hegaztiak hotza usaindurik Afrikanantz abiatu direlarik. San Blase-tarako amiamokoeekin batera gure karriketara itzultzen ikusi nahiko genituzke hain luzez falta diren presoak eta iheslariak. Lehenbizikoak bederen.



DANI BLANCO



Kontakizun bakarra

Joxemari Ostolaza

ARGIAKO KOLABORATZAILEA

ETAren armak eskegitearen harira, handik eta hemendik ari zaizkigu esaka kontakizun bakarra behar dugula bakea egiazkoa eta iraunkorra izango badugu. Eta ni, horrelako baten umea izanik, ez nuke nahi nire ondorengoak holako baten pean heziak izan daitezen. Izan ere, gure haurtzaroan *escuela nacional* deitu haietan “*a cubrirse ar, firmes ar, viva España, alzáad los brazos hijos del pueblo español...*” genuen eguneroko gosaria. Gogoan dut bizi-bizi, Pio XII.a aita santua hil zeneko urtea, Donostiako Artzain Onaren katedralean haren aldeko meza kantatzeagatik etxeratutako nire lehen itxurazko jorrala, Jaime Font de Andreu gotzaia eta Jose Cruz Sudupe Larrañaga bikarioa zirelarik. Ordurako etxeko hizkuntza, euskara, galdua nuen, ez nuen nahi “cashero” izan eta erdarak modernizatzen ninduen. Bagenituen inguruan euskaldunak, sekulako burlak jasan behar izaten zituztenak beren gaztelaniazko azentuak salatzten zituztenak. Ni ere haien defendatzaile baino burlatzailea ninduzuen, garaiko munduak hala eskatuta, nire ustean. Eskoletatik hasita, gure mundua kanpamendu falangista espainola zen, kiroletan ere, Falangeak agintzen baitzuen eta handik kanpo ez zegoen deus. Euskara abandonatuta, gurasoak eta aitona-amonak bereziki behartzen nituen gaztelaniaz mintzatzeraz, “gaur edo bihar konturatuko haiz...” esaten zidaten bitartean. 1965ean izan nuen ETAren berri, ni bezalaxe erdaldundutako koadrilan atxilotetak izan zirenean. Kolpe izugarria izan zen. Komisaria eta Manzanas. Tortura. Dena aldatu zen gure munduan, kanpamendu izandako hartan. Ordurako tailerreko aprendizak ginen, gure eskubideak ezagutu eta irabazteko ahaleginetan bilkurak egiten hasiak ginen. Euskara ikastea izan zen lehentasuna hartu zuena nire bizian. Lehen gaueskola muntatu genuen auzoan, hogeita hamaseiko gerraz informazioa biltzen hasi ginen, “casheroa” izan nahi nuen. Euskaraz mintzatzen zen gaztea, berez, balio handikoa zen gure artean. Gure mundua eraikitzen hasi ginen, gaueko ikasketa teknikoak, kirola eta musika baztertzen genituelarik. Kanpamendu autopista utzi eta bide alternatiboen bila genbiltzan, kanpamendutik at guztia zen alternatiboa. Bestelako kristauak ezagutu nituen, Elizarekin bat ez zetozenak eta guk bezala mundua errotik aldatu nahi zutenak. Marxismoarekin egin genuen topo, eta eskola sozialetan ikasten jardun genuen zenbait hilabetez. Lehen militante liberatuak ezagutu nituen eta haiekin bat egin. Urteak joan eta orain kontakizun bakarra adostu behar omen dugu gureak eta besteenak elkarren osagarriak bailiren. Zintzoagoak, solidarioagoak, aurrerakoiak izan nahi izan dugu eta horretan eman ditugu gure urteak. Euskaldunak izatea behintzat lortu dugu eta euskaldun inguruan bizi gara nahiz erraza ez dugun. Eta kontraerari bagagozkio, ez dut gurasoarena eginen, ez naute mututuko eta gureaz blaituko ditut bazterrak, zorientsu izateko balioko dielakoan, bestelako mundua bilatzeak eta horretan saiatze hutsak zorientsuagoak egiten gaituela jakitun.



»
Urteak joan eta orain kontakizun bakarra adostu behar omen dugu gureak eta besteenak elkarren osagarriak bailiren. Zintzoagoak, solidarioagoak, aurrerakoiak izan nahi izan dugu eta horretan eman ditugu gure urteak. Euskaldunak izatea behintzat lortu dugu eta euskaldun inguruan bizi gara nahiz eta erraza ez dugun



Iñaki Esnaola | Abokatua

«Epe laburrera emaitzak espero baditugu, akabo»

Iñaki Esnaola (Deba, 1948) Espainiako Kongresuan HBren ordezkaria izan da eta euskal preso politikoen abokatua ere bai, 1980ko hamarkadan bereziki. 1989an, Josu Muguruza HBko parlamentaria hil zuten Madrilén, eta bera larriki zauritu. 1991n HB utzi zuen desadostasun politikoak medio.

MIKEL ASURMENDI

ETAk behin betiko amaitu du jarduera armatua. Zein da zure balorazioa?


Gazi-gozoa da. ETA amaitu da, eta poztekoa da. Alabaina, uste dut, ETAk, azken urteetan batez ere, sufrikario politiko neurrigabea eragin duela: neurrigabea —erakunde armatuak dioenez— lortu nahi dituen helburuen aldean. Uholde ikaragarria eragin du: lehenik lokatza bildu behar da eta ondoren eraikitzen hasi.

Analista batek “berandu, baina garaiz” idatzi du.

Garaiz zertarako? Politikan borrokatzeko inork bezainbat ahalmen dugula erakusteko bada, bada, agian bai. Bildu hori erakusten ari da, baina amaiera modu honetatik etekin politikoak espero badira, ez. ETA desitxuratuz eta politikoki deskapitalizatuz joan da. Hiltzorian daudenekin heriotza gozoa edo injekzio hilgarria erabili ohi dira.

ETAk Espainia eta Frantziako gobernuei gatazkaren ondorioei konponbidea emateko elkarrizketa deia egin die. Nola ikusten duzu aukera hori. Zein epean?

Inork ez luke Espainian ez Frantzian sinetsi behar. Mila bider erakutsi digute hori, baita Tony Blair-ek ez beste gainerakoek ere. Beren historiala lekuko. 1. puntua lortu dute, euren interesekoa noski. Gainerakoa ahaztuko dute, eta ezker abertzaleak soilik gogorazaraziko dio. Presoen gaia negoziatuko da soilik, baina epe luzera. Prozesu mota hauetan gertatu izan den legez. Gobernuak kontrolatu eta zuzenduko du gai hau ere.



DANI BLANCO

Nolako jarrera antzeman duzu Espainiako Estatuaren aldetik? PSOErena eta PPrena; Zapaterorena eta Rajoyrena barne.

Jarrera txarra. Espainian “gai” hau saldu dute, eta orain kontrakoa saltzea zaila dute. Gai honek ez du elektoralki saltzen. Rajoyrekin aukera gehiago izan daiteke PSOErekin baino. Bien bitartean, Rajoy datorrela eta, Iñigo Urkulluk bere ziria sartu du “Euskadi Espainian egokitzeke”. Alegia, erdibidean gaude, beti bezalatsu.

Prozesu berriaren lehen urratsek zer ekarri beharko lukete? Presoen egoerari irtenbidea ematea? Biktimekiko jarrera lantzea?

Aro berrian ezker abertzale berriak buru-belarri jardun behar du akordioak lortzeko: hauteskondeei begirako itunak, alternatiba aurrerazaleak eskainiz, euren helburu politikoak lortzeko aliantzak bilatuz. Bide horretatik soilik konbentzitu daiteke Europa (Madril konbentzitzeko bide bakarra) erabakitzeke eskubidea erabiltzea dagokigula. Bide horretan biktimen gaia tartekatzen bada, luzerako dugu. Aldi berean, epe laburrera emaitzak espero baditugu ez dago ezer egiterik.

Nola ikusten duzu euskal gizartea garai eta prozesu berriaren aurrean?

Prozesu zaila baina interesgarria da, bereziki ezker abertzalearentzat. Politikoki hutsetik eraiki behar da, baina indar politiko eta soziala sendoa da. Indar bilketa egiten bada, ezin dugu segidan deuseztu. Amaitu da abangoardiaren garaia. Bestela, gureak egin du. ■



Pernando Barrena | Ezker abertzaleko kidea

«Adiskidetzeko bide luzea landu behar da aurretik»

Pernado Barrena (Iruñea, 1965). HBko Mahai Nazionallean 1998an sartu zen. Nafarroako legebiltzarkide izana Euskal Herriarroken izenean. Lizarra-Garaziko eta Loiolako prozesuetan aritutakoa. Batasuneko buru ohia bi aldiz espetxeratua izan da azken urteetan eta baldintzapeko askatasunean dago.

MIKEL ASURMENDI

ETAk behin betiko amaitu du jarduera armatua. Zein da zure balorazioa?

Ziklo armatuaren bukaera da, eta horrek elkarriketa politikoen irekiera ekarri beharko luke derri-gorrez. Gatazka politikoak bere horretan jarraitzen du, beraz, konponbidearen aldeko dinamikari heldu behar zaio Euskal Herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidea bermatze aldera. Horrek desagerraraziko du gatazka behin betiko.

Analista batek “berandu, baina garaiz” idatzi du.

Erabaki hau hausnarketa sakonaren ondorioz heldu zaigu. Ezker abertzaleak bide demokratiko eta baketsuen aldeko apustua orain bi urte egin ondotik. ETAren erabakia Gernikako Akordioaren edukiak eta Aieteko Konferentziaren dokumentuan jasotakoak bultzatu eta babestera dator. Beraz, egokiera guztiz komenigarria da eta berri pozgarritzat hartzen dugu.

ETAk elkarriketa deia egin die Espainiako eta Frantziako gobernuei gatazkaren ondorioei konponbidea emateko. Nola ikusten duzu aukera hori? Zein epetan?

Jadanik heldu beharko liokete Espainiako eta Frantziako gobernuek ETAren elkarriketa esparruari, gatazkaren ondorioen ingurukoak nola bideratu adosteko. Agenda oso garbia da: presoek etxeratzea, desmilitarizazioa eta desarma.

Nolako jarrera ikusi duzu Espainiako Estatuaren aldetik? Zapaterorena eta Rajoyrena barne.

Entzun diren erreakzio guztietan ahulena Zapate-



JOSU SANTESTEBAN

rorena izan da. Zapaterok hasiera eman beharko lioke gatazkaren ondorioen ebazpen prozesuari, konponbideari hasiera eman dion presidente bezala historiara pasatu nahi badu. Lan horrekin hasi beharra dauka bere ondoren etorriko den presidente espainolari hasitako konponbidearen oinordetza uzteko.

Prozesu berriaren lehen urratsek zer ekarri beharko lukete? Presoen egoerari irtenbidea ematea? Biktimikiko jarrera lantzea? Gizartearen adiskidetzeta?

Adiskidetzeta eman dadin bide luzea landu behar da aurretik, eta premia- neurriak hartu presoek etxeratzea eta biktimen aitortzaren inguruan. Preso, errefuxiatu eta klandestino guztiak etxera ekarriko dituen bidea adostu beharra dago gatazkaren armatuaren ondorioei behin betiko itxiera eman nahi bazaio. Modu berean azkeneko 30 urteotan alde guztiek erabilitako bortxakeriaren biktimek merezi duten aitortza-neurriak adostu behar dira. Betiere, lehenengo eta bigarren mailako biktimarik ez dagoela oso garbi izanda.

Nola ikusten duzu euskal gizartea garai eta prozesu berriaren aurrean?

ETAren erabakiak ilusio berriak piztu ditu gizartean, eta bereziki ezker abertzalearen oinarri soziala, izan ere, irekitzen diren aukerak indar handikoak dira. Ezker Abertzalea gizartearen gehiengoak defendatzen dituen posizioetan kokatuta ikusten dut eta hori oso pozgarria da. ■



Brian Currin | Bitartekaria

«Ziur nago PPk jarrera eraikitzailea izango duela gobernura heltzean»

ETAk jarduera armatua amaitu izana era berezian bizitu zuen Brian Currinek. Prozesu guztian protagonismo handia izaten ari da abokatu hegoafrikarra. Datozen pausoak Aieteko adierazpenak markatutako ordenean egingo direla aurreratu du.

LANDER ARBELAITZ

Zer iritzi duzu ETaren adierazpenaz?

Adierazpena eskatutakoa da. Ez dago anbigutasunik. ETAk indarkeria armatua amaitu duela dio. Hori da nazioarteko sei liderrek ere eskatu ziotena.

Bake konferentziaren arabera orain Espainiako eta Frantziako gobernuei dagokie fitxa mugitzea.

Bai, zuzena da hori. Bigarren puntuak dio ETaren adierazpenari positiboki erantzun behar lioketela, eta biolentziaren ondorioez hitz egiteko ETarekin elkarriketak hasi. Askok dago hitz egiteko eta denbora beharko dute. Hori da hurrengo pausoa.

Konferentziako puntuek markatutako ordena eramango du beraz prozesuak?

Bai, pausoak konferentziaren arabera eman go dira. Lehengo konfiantza eraiki behar dugu eta ETaren adierazpena horretarako da. Horren ondoren, neurri horiek hartzean, ondorioei buruzko elkarriketak izango dira, eta behin hori eginda hirugarren paragrafoan aipatutakoa jorratzen hasiko gara.

Zer espero behar dugu orain, bi gobernu hauen erantzuna?

Imaginatzen dut biek nazioarteko liderrek



LANDER ARBELAITZ

egindako eskaerari baiezkoa erantzungo diotela. Ez dut uste Espainia edo Frantzia egiteko gai ez den zerbait eskatuko zuketarik. Kontestu politikoa ETaren adierazpenaren ostean kokatu behar da. Bake prozesua amaitzeko aukera erreala da. Arduratsua den edozein gobernuak onartuko luke konferentziaren bigarren puntua.

Hauteskundeek aurretik?

Bai. Alderdi sozialista eta popularra ETaren amaiera batera kudeatzen ari direla uste dut, interes nazionalak ditu euren zat. Rajoyren

adierazpenetatik hori interpreta daiteke. Nik uste dut baietz.

Rajoyri buruz galdetu nahi nizun. Asko aldatu du PPK diskurtsoa.

Bai, normala da oposizioan dagoen alderdi batek diskurtsoa aldatzea boterera heltzean. Herritar guztien interesak defendatu behar dituzte orduan, eta PPK gobernura heltzen denean jarrera eraikitzailea izango dutela uste dut. Ziur nago horretaz.

Orain urte eta erdi ARGIAN argitaratutako elkarriketan esan zenigun ez zegoela konfiantza nahikorik elkarriketa multilateralak abiatzeko. Ba al da konfiantzarik orain?

Orain, dudarik gabe, gehiago dago. ETAren azken agiriak lagundu du horretan. ETA eta Madrilgo gobernuaren artean gatazkaren ondorioak jorratzeak oraindik gehiago sortuko du. Orain elkarriketa horiek askoz errazagoak izango dira, iraganen ETAk, ezker abertzaleak eta Espainiako Gobernuak izan dituztenak baino. Lehen beti izan dute berriz biolentziara itzultzeko arriskua, eta horrek asko zailtzen zituen elkarriketak. Orain hori ez dago, eta uste dut konfiantza eraikitzeko aukera handiak dituztela.

Ba al duzu Arnaldo Otegi buruzko berririk?

Ez azkenaldian. ETAren existentzia arrazoi hartuta atxilotu zituztenak askatu beharko dituzte. Biolentzian nahastuak izan ez diren horiei buruz ari naiz. Nire ikuspuntuan batzuk ahalik eta azkarren askatu behar lituzkete, gainera: bide soilik baketsuen aldeko jarrera erakutsi dutenak. Arnaldo horietako bat da.

Noiz joko duzu zure lana amaitutzat?

Nire lana Euskal Herrian alderdien eskaeratik dator, eta orain alderdi ezberdinen arteko elkarriketak martxan jartzeko aukera dago. Bide orrian aurrikusten da nazioarteko babesa eta hori eskatzen badute, ziur nago Nazioarteko Harreman Taldeak gustura egingo duela bere lana. Agian urteak hartuko ditu eginbehar horrek.

Nola sentitzen zara pertsonalki etorri zinen lehen alditik egindako hobekuntza ikusita?

Oso pozik nago. Osteguneko adierazpena oso positiboa izan zen. Euskal Herrian lagunak egin ditut eta atzoko adierazpenak sakon ukitu ninduen. Herri-tar guztiei onena desio dizuet eta uste dut euskal jendarteak atzo gertatu zena merezi duela. ■



EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SELORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Báimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPARRA
HEMEN PIRRI

Ehorzketa ohiturak bizirik Nafarroa Beherean

Egungo gizartean, heriotza tabu bilakatu da, gordegian egon behar duen zerbait. Etxetik kanpo hiltzen da jendea, ospitalean, erietxean. Handik ehorztetxera eta gero hilerria doa gorpua, eta hileta elizkizun askotara ez da zerraldoa eramaten jada. Alabaina, garai bateko heriotza-ohitura ugari mantentzen dituzte oraindik Nafarroa Beherean.

NOEL ELORGA

AITZINA, euskal gizartea, gutxienez herri txikitik, etxearen inguruan egituratzen zen. Xalbador Urepeleko bertsolariak zioenez, etxeak eman dizkigu euskaldunoi izena eta izana. Nafarroa Beherean, etxe bakoitzak bere hildake edo elizabidea zuen, alegia, etxetik elizarako eta beraz hilerriko bidea, hilerria elizaren inguruan kokatua baita ia herri gehienetan.

Ehorzketa egunean, familiak eta auzoak lagunduko dute hildakoa elizaraino, delako hildake hori jarraikiz. Elizabidean aurkitzen den lehenbiziko etxea da lehen auzoa eta alderantzizko norabidean lehen etxea berriz, bigarren auzoa. Lehen auzoak funtzio berezia du hileta ospakizunen antolaketan, baita bizitzaren gorabehera gehienetan ere. Bataioak, jaunartzeak, ezteiak, baserriko lan dorpeak, baina baita istripu eta ezbeharrek gertatzen direlarik, lehen auzoaren laguntza izaten da beti. Bada, heriotza bat gertatzen denean etxe batean, lehen auzo

**Maldan gora eta behera
batzuetan lau kilometroko
hildake luzeak egiten
zituzten, kirol lehiaketa
neketsuen pare**

hori abisatu eta berak jarriko du martxan “protokoloa”.

Lehenik, herriko apaizaren ikustera joango da heriotzaren mezuarekin eta gurutzea eramango du elizatik hildakoaren gelaraino. Bitartean, etxekoek gorpua txukunduko dute, jantzi garbiak jarriko dizkiote –sarri gorbatarekin, gizonezkoa izanez gero– eta gela apainduko dute: loreak, amabirjinaren irudia eta, noski, ohearen aldamenean lehen auzoak ekarritako gurutzea finkatuko dituzte. Gorpua ohean mantentzen da, hileta aurretik bere azken loa etxean egin dezan. Duela gutxi arte, gelako mirailak estali egiten ziren mihise batekin. Ziur naiz oraindik herri batzuetan mantentzen dela ohitura bitxi hori. Halaber, lehiak itxi egiten dira jendeari erakusteko zerbait gertatu dela etxean, eta bide batez, hildakoari zor zaion errespetuagatik.

Lehen auzoak, bigarren auzoaren laguntzarekin, jendea ohartaraziko du, loreak eta kutxa



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

enkargatuko ditu, hil-mezua egunkarietan agertaraziko du eta beste lau auzori eskatuko die zerraldoa eramateko ehorzketa egunean. Adibide bat ematearren, duela 40 bat urte, Bidarra herrian, lau gizonak oinez eta bizkarrean eramaten zuten zerraldoa etxetik elizaraino, hileta egunean. Herri txikiak izan arren, baserri sakanatuek eremu handiak hartzen dituztenez, maldan gora eta beheara batzuetan lau kilometroko hildibe luzeak egiten zituzten, kirol lehiaketa neketsuen pare. Herri txikiak, baserri koskorak, eremu aldapatsu eta ez emankorak, horra hainbat erritu eta usantza zahar mantendu dituen Nafarroa Beherearen orografia.

Aritzakun eta Urritzate haran bakartietan zehar

Aritzakun eta Urritzate, Nafarroa Garaiko mugan dauden bi ibar txiki dira. Urritzate, Meakako mendateak bereizten du Erratzutik. Aritzakun berriz, Intzulegiko lepoak urruntzen du Amañur eta Arizkunik. Nahiz eta bi haranak berez Nafarroa Garaikoak izan, Arizkun edo Erratzuko karriketatik bizpahiru ordura daude eta Bidarraiko herritik aldez, ordubete eskasera. Muga finkatu zelarik Nafarroa puskatzeko unean, argi eta garbi ikusten da “puskatzaileek” ez zutela nihundik ere ezagutzen bertako geografia eta ez zituzten kontuan hartu ur erreken ixurgiak. Bi haran horiek Nafarroa Beherekoak behar zuten izan itxura guztien arabera, baina tira, Kintoan ere, Aldudeko ibarrean, antzeko egoera errepikatu zen. Hala, aritzakundar eta urritzatearrak Bidarraira eta Itsasura joan ohi ziren erosketak egitera, mezara, eskolara batzuetan edota artaldeak Nafarroa Behereko bazka lekuetara eramatera, baina heriotzaren bat gertatzen zelarik, Iparaldeko orenean bizi arren, Hegoaldera eramaten zituen beren hildibeak. Kirol lehiaketa baino gehiago, olinpiadaren antza zuen hileta egunak, hilkutxa ibar txiki eta bakar horietan barna Erratzu eta Arizkuno elizetaraino zamatuz.


Saran
(Lapurdi)
ateratako
irudia,
1950eko
hamarkadan.





Neguan, elurrarekin, ibilbideak indar itzela eskatzen zien lau gizonak eta sarri askotan derrigortuak ziren geratzera, arnasa hartzeko. Gosaria ere egiten zuten zerraldoaren gainean. Harrigarriena zera da, bidarraitarrak eta itsasuarrak oinez joaten zirela ehorzketa, ordu pila bat iragan ondoren. Elkartasuna adierazteko modua zen.

Ehorzketa eguna

Nafarroa Beherean eta Ipar Euskal Herri osoan, hil eta bi egunera egiten dira ehorzketak. Duela gutxi arte, hileta aurreko bi gauean, lehen eta bigarren auzoak egoten ziren gau osoa hilaren lagun. Hala, familiak deskantsatzeko aukera zuen. Batzuetan, gertatzen zen bi auzoak haserretuta egotea, eta elkarri gorroto gorria zioten bi koinaten kasua ere


Zarautz
Hileta Zerbitzuak


Harrespil
Hilerri eta Hileta Zerbitzuak


Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · Zarautz (Gipuzkoa)
☎ 943 894 937 / Faxe: 943 894 941 · harrespil@harrespil.net

Amilaga, 39 · Bergara (Gipuzkoa)
☎ 943 761 299 / Faxe: 943 761 299

Hilerrien gestioa · Hileta zerbitzu orokorrak · Zerbitzu iraunkorrak · Koroak · Eskelak



ezagutzen dut: hildakoaren logelan gau bat elkarrekin pasa ondoren konpondu ziren.

Hileta egunean, lehen auzoa joaten da apeztxera apezaren bila eta biak etortzen dira hilaren etxera. Heriotza gertatu zenean lehen auzoak ekarritako gurutzea, orain bigarren auzoan hartu eta eramango du kutzaren aurrean. Izan ere, lehen auzoak beste funtzio bat du, familiarekin doluan parte hartzea. Elizan ere, eserlekuetan, lehen auzoarentzat da aurreneko lekua, eta hildakoaren familia doa ondoren, gizonak alde bate- tiki eta emazteak bestetik. Eta meza ondoren, lehen auzoak berak jarraitzen du familiaren sostengu eta babes ariketarekin, egoerak hala eskatzen badu behintzat.

Lurperatze lanak burutu ondoren, lehen auzoak familia, hiletariak, gurutzeketaria –hau da, bigarren auzoa– eta gainerako jendea herriko ostatura gidatzen ditu, otordua egiteko. Hor ere, lehen auzoak kontu handiz ibili behar du, norbait gonbidatzea ahazten bazaio baztertua izan denak ez baitu sekula ahanztiko. “Luzakor baina ez anazkor”, dio lurraldeko esaera zahar batek. Otordua bukatutakoan, lehen auzoak –hildakoa gizonezkoa bada gizonak eta emakumezkoa bada emaz-

teak–, bazkaltiarak isilarazi eta gero, otoitz egitera deituko ditu otordukideak. Herritarren meza-sariak emanen dizkiete lehen eta bigarren auzoei eta horrela bururatuko da ospakizuna.

Bederatziurreneko mezarekin, auzoek beren betebeharrak berreskuratzen dituzte, eta berdin hildakoaren alde mezak egiten diren aldiro.

Etxeak bizitza sozio-ekonomikoaren funts izaten jarraitzen duen gizarte baserritarretan, nahiko indartsu mantendu dira aipatu ohiturak. Hala ere, nahiz eta oraindik osasun onean dagoen nekazaritza –eta batez ere

ardi hazkuntza– Baigorri, Garazi, Oztibarre, Amikuze, Arbeloa ibarretan, gazteak aldiro gehiago Lapurdiko kostaldera doaz lan bila, Baiona, Angelu eta Miarritze aldera, eta pixkanaka, beren ustez zaharkituak diren usadio horietatik aldentzen dira. Dena den, oraindik ere, askotan konturatu gabe, atxikimendu inkontzientea mantentzen dute ohitura horiek.

Bizitza, heriotza, maitasuna, gorrotoa, ohiturak, mugak... Gai gogoetagarriak Omiasaindu edo Saindu Guztien Egun honetan. ■




Leihoak itxi egiten dira jendeari erakusteko zerba it gertatu dela etxean, eta bide batez, hildakoari zor zaion errespetuagatik



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako



☎ 943 780 671
Faxa: 943 783 447

Otadui Zuhaiztia, 25
20560 Oñati (Gipuzkoa)

www.funerariamoyua.com

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



TTAKUN (H)ERRENKA

Iraultzara jolasean



hartu gabe pasatzea ez zen ezinezkoa, Madrilek askorako ematen du, baina asko ziren, eta informati-

boetatik oso urrun mantendu behar zen urriaren 15ean manifestazioa izan zela ez ohartzeko. Etxean bi gara, eta bat joanez konpondu genuen gure nahi, baina ezina; gure gurasoak lasaitzeko ere egin genuen (hain pozik daude gurasoak beren seme-alaba esnatu berriez, ez dizkiegu gureei harrokeriarako aukera guztiak zapuztuko). Garen biko honen erdiak baina, manifestara joan ez zenak, arratsaldean etxean pentsatuz pasatzeko parada izan zuen, eta hori gogoratuz egiten da, nola idazten zigun lagun batek Frantziatik Tunisiatik zetozen berriak gorai patuz, “bukatu da, orain dator gure lezioa”, zioen; gazte batek bere burua erre zuen, irudia hemen ikusten ditugunetatik ezberdina da, (edo ez hainbeste, behin gogoratzen hasita, Castellon bere burua erre zuen etorkin errumaniarraz gogoratu baitzen, Cibelesen oinez noiz hasi zain ez zegoena): baina herrialde arabiarretan hasi zena, militar eta talde manikeoek ordezkatu dute, eta iraultza iragarkietan azaltzen zen hitza eta kontzeptua dira dagoeneko.

Berriro plaza hartan, Sol, ito beharrean, hainbeste jende zentzuzko, hiriak ederra zirudien, etxetik festa bat ikusten zen, hauteskunde egunetan esaten duten eran, demokraziarena; eta susmo zahar hura, zeinak dioten manifestazioek, baketsuak direnean, jasotzen dituen demokrazia bera apaintzen eta publizitatzen dutela. Eta orain era globalean. Manifestazio baketsuak mundu guztian; mapak jarri dituzte informatiboetan, puntu pilo batekin, baina nik ez nuke mundu guztian esango, eta ez da zaila jakiten non ez zegoen punturik.

Irakurri diot mugimenduan buru-belarri dabilenen bati medioek ezkutatu egin nahi dutela, ez

DANI BLANCO



Iratxe Apaolaza



Padrón



Sarasola

nuke hala esango, kontrakoa da susmo txarrak sortzen dizkidana; irakurri dut baita ere mugimenduaren zati bat pribilegiatzen ari direla, 15Maren talde eskuindarre-na. Barack Obamak Wall Street parean zeudenak ulertu ditu, baita Jean Claude Trichetek European zeharrekoak ere, Erromakoak inork

ez, ezta 15Mak berak ere; marka bat sortzen ari da izen gabe jaio nahi zuen jende multzo hartatik, eta gauzak biribiltzeko, Aznarrek iraindu ditu; zer gehiago nahi duzu? Europaren borondate ona paseatzera ateratzen balitz bezala irakurtzen dira martxok, haurtzaro berri bat posible balitz bezala, eta Madrilekoan zegoen nire erdiak zioen baietz, borondate on hori mantentzen zela.

Baina 15Mak ez du batzuen aldarrikapen izan nahi, denona baino, eta denona mundu guztian; botereak zortea izan du berez mugimendu honekin, mundua dagoen eran erreazioak itsusiago behar lukeelako ziurrenik, haragi errearekin zer ikusi gehiago duena *performancez* beteriko manifestazio alaiekin baino, zeinak gazte lehen despolitizatuen tailer egin diren, eta medioek hala azaldu digute, urriaren 15ean zerbait garrantzitsua gertatu zela, baina non? Eta non ez?

Izan zen momentu bat non mugimenduak erabaki behar zuen Sol plazan jarraitu edo ez, eta kontu logistikoak titular egin ziren, orain gertatzen ari den eran Madrilen manifestazio ondoren okupatu zen hotelarekin; atzeratu egin dute erabakia, proposamenak bildu, eztabaidatu eta eraikinarekin zer egin erabakitzeke; eta hori ondo legoke auzo mugimendu bat balitz, baina ez dakit noraino 15Ma ez ote den ari bihurtzen medioei mundua sinplifikatzeko balio dien etiketa bat, iraultza hori dela sinestearazi eta mundua mendealdearen neurriara begiratzeko? ■



15Mak ez du batzuen aldarrikapen izan nahi, denona baino, eta denona mundu guztian; botereak zortea izan du berez mugimendu honekin, mundua dagoen eran erreazioak itsusiago behar lukeelako ziurrenik

Fermin Erñiti

KAZETARIA

Teologoa, ekonomialaririk hoberena

Guraizeak eskutan harturik, gure agintariak buru-belarri ari dira mozketak lanetan, administrazioen diru-sarrerak eta gastuak orekatzeko asmoz.

Gizarte zerbitzuak kinka larrian eta ahulenak ahulago utziko dituen mozketaldiak gizartearen haserrearen eragin badu ere, politikariek non eta nola moztu, horixe dute eguneko erronka nagusi. Pernandoren egia izan arren, merezi du gogoratzea: kontuak orekatzeko bide bakarra ez da gastuak murriztea, diru-sarrerak ere handi litezke; zuzeneko eta zeharkako zergen arteko oreka, iruzur-maila, honaino ekarri gaituen hazkunde-eredua edo bankuen lotsagabekeria gogoetagai interesgarriak lirateke; eta armetan xahutzen den dirutza ikaragarria gizarte-zerbitzuetara bideratuko balitz?

Kontua da ekonomiak, krisia eta mozketak direla-eta, inoizko tokirik zabalena hartu duela komunikabideetan. Erredakzioetan gaiak zerbitz dakien kazetaria oso *espezje arraroa* izanik, komunikabideek ekonomialarien-gana jo dute laguntza eske, haiek krisiaren gakoak behar bezala azaltzea ahalbideratuko digutelakoan. Eta hortxe dituzue, jo eta ke, egunkari, irrati eta telebistetan, krisia gora eta behera. *Periodikua leituz ilustratzen gerala* jakitun, nik ere azterketa horiek irakurtzen ditut,



JOSU SANTESTEBAN

argia noiz ikusiko. Gehienetan, ordea, alferrikako ahalegina izaten da. Aurretik igarri ez zutena, orain begi-bistakoa zela azpimarratzea ez dago gaizki. Iragana etorkizuna baino argitsuagoa baita, letretakook ere hau dena zergatik gertatu den ulertu-edo egin dugu. Gertaturikoaz ez ezik, ba al da horien artean geroaz zerbait esatera ausartuko denik?

Ekonomia ekonomialarien esku uzteko gauza serioegia delakoan, hortik urrun dabilen ideietan ere arakatzeari ekin diot, krisiaren tunel beltzetik ateratzeko argi-printza amets. Bada, amets ez ari garela, hortxe Hans Küng teologoak *Was ich glaube* (*Sinesten dudana*) liburuan gogorarazi diguna: “Ekonomia politikaren menpe jarri behar dugu berriro, eta ekonomia eta politika, etikaren menpe”. Erronka zaila? Jakina, baina letretakook hori aiseago ulertzen dugu azken hilabeteotan bolo-bolo dabilen *estres azterketa* edo *erreskate funtsaren erreforma* baino. Nago suitzarrak proposaturikoa dela krisiari etekina ateratzeko modu bakarra, ezinbestekoa mundu hobearen amesteko.

Ez dakit Küng teologoa-rena Jainkoaren hitza ote den, baina jainkotu diren ustezko adituen iritziak baino askoz argiagoa eta interesgarriagoa iruditzen zait. ■



Periodikua leituz ilustratzen gerala
jakitun, nik ere azterketa horiek
irakurtzen ditut, argia noiz
ikusiko. Gehienetan, ordea,
alferrikako ahalegina izaten da.
Aurretik igarri ez zutena,
orain begibistakoa zela
azpimarratzea ez dago gaizki

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



oihukatzen zuten tonu garrasitxoan, zuzen akonpasatuak entseiatuz, ongi ikasita zutela adieraziz. Eta erritmoari jarraituz errituala bailitzan, dantzaren besoak gora eskual

ukabil, hatz luzeak erakutsiz, oldarkor erronkan, zuzentzen zitzaizen ingurukoei uniformedun urdinak hesi. Txuri-urdineko elastikoz mozturoriturik ikurrinak airean erakusten zuten nongotasuna harrokeriaz. Eta liturgia hori, Zaragozako futbolariaren batek lurrera egiten zuen bakoitzean. Maitasun kantua ere bazuten Realari eskainia, “*cada día te quiero más*” edo holako mezu poetikoren batez osatua, tartean nolako sortzaileez hornituak daudela argi-

Pisalo, pisalo

tuz. Griezmannen zelairatzeak ekarri zigun esloganetan izarra: “*Griezmann cabrón esto es afición*” eskaintzen ziotelarik. Espainiakokan bikain integratuak ditugu. Haiengandik hurbil ginenak, koadrilan joanak, nire kasuan Realak baino futbol maiteagoa dudana, auzo-lotsak harrapatuturik kieto igaro genuen partida osoa etxerako bidea hartu genuen arte. Beharrik, gustuko lagun minez igaro genuela asteburua eta restopeko bidekoak ekarri gintuela gure onera. Nekez harrapatuko naute berriaz holako batean, telebistak horiengandik ezartzen duen distantzia baliatuz jarraituko dut futbola errepikapenak eta guzti. ■



Baldid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

Sakontasunak ba ote du jaberik?

Iñigo Ansorena psikoterapeutak *Gaur* 8n idatzitako artikulu batean, espiritutasunaz eta zientziaz aritu da. Espiritutasunaren nolabaiteko aldarrikapena egiten du eta, bide batez, zientziari astindutxo bat eman.

Zientzia epaitzeko erak sortu dit ezinegona: “Zientziaren ikuspegi totalitarioak espiritutasunarekin zerikusia duen guztia erdi brometan ikustera garamatza” dio. Zientziak ba ote du ikuspegirik? Izatekotan, zientzialariek dutela esanen nuke, edo zientzialarien erakunde edo taldeek. Eta ez nahitaez denek berdina. Izanen dira totalitarioak, eta baita kontrakoa direnak ere. Espiritutasunaren lurraldekoen artean bezalaxe, hor ere denetik izanen baita.

Aurreraxeago: “...ikuspegi zientifiko hutsa ardatz bakartzat hartzen dugunean, mundu zoragarri hau, sakontasunik gabeko paraje zapal bat bihur dezakegu”.

Bada, bizitzaren inguruko kontakizun espiritua-lak eta zientifikoak alderatuz gero, interesgarriagoak eta kitzikagarriagoak iruditzen zaizkit zientziaren ildotik jotzen dutenak. Zer esanik ez, askozaz sakonagoak. Eta, esanen nuke, zientzian buru-belarri dabiltzan ikerlariei, baita hamaika urte absurduak diruditen xehetasunak aztertzen eman dituztenei ere, egiten dutena zoragarria irudituko zaie. Eta hala



Nahiago dut egia gordinera
hurbiltzea, jakinaren gainean
begiak zelofanarekin
estaltzea baino



sentituko dute, sentimendu hori “atomo, partikula, zenbaki eta neurotransmisoreen joko zentzugabearen ondorio” direla uste badute ere, Iñigoren hitzekin esateagatik.

Espiritutasunetik jaso ditudan narrazioek ibilbide motzagoa dute, eta borobilak izan ohi dira. Ia beti bada azalpen osoa duen norbait. Izanen da, akaso, bestelakorik. Zientziak, berriz, leihoak itxi baino gehiago, ireki egiten dituela iruditzen zait, galdera/erantzun bakoitzari beste bat etortzen zaiolako segidan. Zoritzarrez edo zorionez, jakin eta ulertu nahiko genukeen guztia jakin eta ulertzeko itxaropenik gabe etsi beharko dugu.

Ikasi duguna sarritan ez dela guk nahiko genukeen bezalakoa, erroman-tizismoa galtzen duela maiz? Baliteke, baina nahiago dut egia gordinera hurbiltzea, jakinaren gainean begiak zelofanarekin estaltzea baino.

Eta hau guztia ez da espiritutasunaren aurkako alegatua. Hor dago, eta ikusten diot nolabaiteko zentzua, erlijiotik eta esoteris-motik aske dagoenean behintzat. “Behar dugu”, edo komeni zaigu, baina horrek ez dio zientziari deus ere kentzen. Eta, nire ustez, ezin-nak eta mugak, inon bilatzekotan, zientzialariengan eta pertsonongan bilatu beharko ditugu, zientzian baino gehiago. ■



HIRUKO TXIKIAN

Andoni Mujika



Krisi mota asko bizi dugu gaur: ekonomikoa, ekologikoa, ezkerrena, erlijioarena, eskubideena, demokratikoa... Krisi sistemikoa. Kolapso sentsazioa eta nora eza. Eta desorientaziotik ateratzea zaila da. Baina tira, askatzen hasteko, zera esan daiteke: krisi batzuen larritasuna ukazezina dela, baina krisi guztiek ez dutela *rango* berbera. Has gaitezen balorazio zorrotzagoak egiten. Krisi mota ezberdinak batu dira, bai, baina ekonomikoa da nagusia, eta honekin batera, seguruenik, energia eta klima aldaketaren krisia (ekologikoa). Niretako krisi hau (ekologikoa) inportantea da, batez ere ekonomikoan duen eraginagatik.

Rangoa

Beste behin ere, pertsonen duintasun krisiak kezkatu behar gaitu gehien. Eta duintasuna konkistatzen hasten da beharrian material minimoak lortzen hasten garenean. Nahi duguna esango dugu, baina horrela da. Badakit analisi hau ez dutela konpartituko —edo mila ñabardura jarriko diotela— inoren golkotik soldata ederrak jasotzen dituzten parasitoek; eskubidez mozkortuta dauden horiek. Ongizatearen eredu sozialdemokrata eta merkatuaren logika uztartu nahi duten *ilusionistak*. Bukatzeko, desio bat: argazki honek ondorio berritzaileak izatea gizarte, lana eta administrazioa antolatzeke orduan (ordu historiko berrian). ■



ZIRTAK

Julen Galbiza

IDAZLEA

Hiltzaile-sena

Aitorpen zintzo batekin hastearren, gero inork ez diezaion inongo kazetariri esan zeinen bizilagun ona nintzen eta zelan agurtzen nuen jendea kaletik gurutzatzerakoan, argi utzi behar dut gero eta beharrian handiagoa dudala norbait akabatzeko. Norbait diot, modu lauso samarrean, ondotxo dakidan arren nor izango litzatekeen nire biktima. Alu arraio horrek ez dit aparteko ezer egin, ez behintzat ezer eskandalagarririk, baina zenbat eta denbora gehiago igaro hura garbitu gabe, orduan eta min handiagoa sentitzen dut sabelean, min benetakoa, etengabeko ziztada baten antzekoa. Badakit tipoa hiltzen dudane egunean amaituko dela berak eragiten didan mina, baina, bitartean, kezkatuta bizi naiz: hasieran uste nuen ultzera bat zela, baina medikuek ezetz diote, urduritasuna baino ez dela. Ni, ordea, zerri horrek eragindako minbizia ez ote den hasi naiz pentsatzen.

Lehen dena errazagoa egiten zitzaidan: nobela bat idazten hasten nintzen, sortzen nituen zenbait pertsonaia, euren inguruan eraikitzen nuen mundu bat... eta bizitza errealean norbaitek potroak puzten bazizkidan, nobelako pertsonaiaetako bat hiltzen nuen, astiro, haren fikziozko sufrimendua dastatuz, eta, hurrengo egunean, bizitza errealeko kaparra horri begiratu, eta aurpegi zurbilagoa igartzen nion beti.

Sorkuntza eta budua odoleko lehengusuak dira. Ez alferrik, maiz entzungo diozu edozein sortzaileri arrazoi horrexegatik idazten duela, pintatzen duela, eskulturak egiten dituela edo musika konposatzen duela, alegia, bere hiltzaile-sena modu zibilizatua goan bideratzeko. Azkena Julian Schnabel izan da: "Pintatzeari utziko banio, kartzelan amaituko nuke". Baina sortzaileen aldarri horiek suiziden mehatxuen antzekoak dira. Benetako suizidak teilatu-



INIGO AZKONA



Sortzaileak, oro har, koldarrak

dira: lehendik eginda dagoena

hobetu beharrean, hutsetik

sortzen dute mundua, euren irudi

eta antzera, munduaren neurria

euren neurrikoa izan dadin



irudia:

Antton Olariaga

ra igotzen dira, salto txiki bat, tirabuzoi bikoitza jauzi karpatuarekin, eta ttak, bozgorailurik gabe hiltzen dira, 0tik 10era bitarteko puntuaziorik espero gabe.

Berriki José Ovejerok *Escritores delincuentes* liburuan azaldu duen moduan, badaude benetako hiltzaile-sena erakutsi duten idazleak ere (Arturo Ripstein ez da idazlea, baina emairozue katana bat, eta ikusiko duzue), baina salbuespena dira. Sortzaileak, oro har, koldarrak dira: lehendik eginda dagoena hobetu beharrean, hutsetik sortzen dute mundua, euren irudi eta antzera, munduaren neurria euren neurrikoa izan dadin. Hain dira koldarrak, ezen inoiz ez dute onartuko hiltzaile-sena ez dutela sekula besteen kontra erabiliko, ezpada, gehienez ere, euren buruen kontra. Ikusi, bestela, nolako bilakaera duen J. M. Coetzee idazle eta aldi berean pertsonaia, *Summertime* liburuan: "Lanik ez egitearen sedukzioan

eroriko banintz, orduan zer? Neure buruari tiro egin beharko nioke", dio. Baina gero zuzendu egiten ditu bere hitzak: "Ez badut idazten, deprimitu egiten naiz", botatzen du, hasierako asmo odoltsua nabarmen apalduz.

Azkenean, baina, ez bata ez bestea: indarkeria oro idazketaren bitartez kanalizatzeko erabakia hartzen du, eta, ondorioz, bere burua zigortzen du, barazkijale bihurtuz.

Coetzeeren eta Schnabelen asmoak berberak dira finean, nahiz eta oso zalantzazkoa den Coetzeek bere burua hilko zuenik idatziko ez balu, eta Schnabelek inor garbituko zuenik pintatuko ez balu. Alderantziz izango da akaso: idazten ez badu, pintatzen ez badu, sortzailea bera hilko da, baina ez suizidatuta, ezpada

ultzera edo minbizi baten erruz, bere gorrotoaren iturri den tipo horrek bizirik jarraitzen duen bitartean. ■



BERTSO BERRIAK

Julio Soto

Amaiurri jarriak



GALDER IZAGIRRE/XDZ

I

Fernandok bere jomugan zeukan
iltzaturik aspaldian
aita santuak bere baimena
luzatu zion aldian
hamabi mila soldadu oinez
bi mila bostehun zaldian
Duke de Alba lagun zuela,
ejertzittoa abian
erreinu gabe geratu ginen
mila bostehun ta hamabian.

II

Mila bostehun ta hamaseia zen
urte luze, urte belztu
Fernando hil zen eta Labritek,
birkonkistarako prestu
Donibanera, Orreagara,
Erronkarira aurkeztu
zituen arren Nafar zaldunak,
odolak bazterrak estu
gure erreinuak jarraitu zuen
konkistatzaileen esku.

III

Mila bostehun ta hogeita bata,
maiatzak eguzki printza
Asparrots buru, herria zutik
Yesan eraso bortitza
hamabostean, Donibaneko
altxamenduaren hitza
hamazazpian, Iruña aske,
bete zen azken baldintza
udaberriak itzuli zion
Nafarroari bizitza.

IV

Hogeita hamar egun ekainak
Noain borroka atari
Gaztelak berriz ere eraso,
Beaumontarrak gidari
zaldi, aizkora, lantza, ezpata
sartu honi, sartu hari
gure herriak, nahiz defendatzen
bihotza eskutan ari
galdu zituen itxaropena
eta sei mila gudari.

V

Mila bostehun ta hogeita bia
Amaiurren ilargiak
malkotan bistan utzi zituen
tropa iritsi berriak
Labriten seme zenak, Enrikek
eskuak goian jarriak
kopuruz alde handia baina
ez zuen etsi herriak
kolore gorritz tindatu ziren
gazteluaren harriak.

VI

Mila bostehun ta hogeita laua
azken dantza, azken guda
hartu zituzten Hondarribia
eta itsasoko ura
orduan hasi eta gaur arte
jazarpena, diktadura..
soa aurrerantz, itzul gaitezen,
hartu harri bat eskura,
herri berri bat eraikitza
Amaiurko gaztelura.



DOINUA: Lurraren pean sar nindaiteke.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Antzerkia

Ke arteko kantua

Gloriaren kantua da Khea Ziater taldeak etapa berrian plazaratu duen lehen lana. Alex Gerediagak zuzendu duen antzezlanean, maitasun hautsian oinarritutako istorioa topatuko du ikusleak, erreferentzia eta baliabide zinematografikoekin uztartua.

OIER GUILLAN

Argazkiak: Sonia Aoujil

KHEA ZIATER antzerki taldea aspaldi sortua bada ere *Gloriaren kantua* izeneko lanarekin hasi du bigarren etapa. Antzezlanaren fitxa tekniko eta artistikoari erreparatuta zaleak Antzerkiola Imaginarioari loturiko izen ugari topatuko du, eta ez da kasualitatea. Alex Gerediagak azaldu digunez Bilboko Mina Espazioan sortu zen Khea ere, besteak beste pinturan, antzerkigintzan, arkitekturan eta poesian ziharduten hainbat lagunek osatua 1998an. “Mina Espazioko mugimenduari estuki lotuta sortu zen taldea, hainbat diziplina artistikoko lagunen artean. Gerora Antzerkiola Imaginarioa sortu zenean dinamika horretan sartu ginen taldekide asko”. Gerediagak azaldu digunez Antzerkiolako esperientzia sekulakoa izan da denentzat, baina 2008an konpainia krisian sartu eta beste etapa bati heldu zionean sortzen jarraitu ahal izateko eta dinamika mantentzeko berreskuratu zuten hainbat lagunek Khea proiektua. “Antzerkiolarekin proiektu berriak sortzen direnean hor egongo gara, baina Khearekin beste antzerki mota baterantz jo dugu. Antzerkiolak antropologia teatralaren bidetik abiatzen zen; Khearekin, batez ere, zinearekin lotura izan dezaketen hautuekin egin dugu lan”. Antzerkiolak 2008tik abiatutako etapa pausatuagoan sortutako *Babiloniako loreak* lanean ere presente dago Alex Gerediaga bera.

*Gloriaren kantua*n amodioa eta desamodioa dira ardatzak gaiari dagokionez, edonork bere egiteko moduko sentipenak. Funtsean maitasun istorio baten gainbehera sumatzen da antzezlanean, edo bikote harreman baten barrunbeen arakatzea. Gloria eta Takk dira antzezlaneko protagonistak, nahiz eta beraien





Kea da antzezlanaren ezohiko protagonista. Kea datorkigu burura taldearen izena entzutean, kea zabaltzen dute aretoan taldeko kideek publikoa sartu aitzin, kea dator protagonisten zigarroetatik bikote harremanaren barrunbeetara. Ke artean joango da amodioa *Gloriaren kantuan*.

izenak ez diren behin ere aipatzen. Euskarazko bertsioan Leire Uchak eta Na Gomesek betetzen dituzte rol nagusiak, gaztelaniazkoan Arrate Etxeberriak jokatzeko du Gloriarena. “Aktoreei dagokienez historia berezia izan da antzezlan honetakoa. Arratek bete zuen hasiera batean Gloriaren rola gaztelaniaz, baina haurdun geratu zen eta Leirek hartu zuen ardura bi bertsioetan. Orain berriz, Leire dago haurdun, beraz beste dinamika batean sartuko da antzezlanaz”. Korrika Kulturalaren barruan estreinatu zuten pasa den martxoan euskarazko bertsioa.

Antzerkia zinez

Gloriaren kantua etengabeak dira hala zineari nola musikari egindako erreferentziak. Leonard Cohen kasu, oso presente dago, une jakin batean Takk-ek *I'm your man*en bertsio berezi bat eskainiko du zuzenean. Jean Luc Godard-en film baten zatia ere ikus eta entzun daiteke antzezlanaren momentu batean. Dramaturgiak zineari loturiko estetikan sakontzen du, hala argiztapenean nola oholtza gaineko irudien sorreran. Gerediagak nabarmendu duenez “zineari loturik egin dugun bilaketa oso lagungarria izan zaigu antzerki naturalistan erori gabe istorio intimoa kontatzeko”.

“Zineari loturik egin dugun bilaketa oso lagungarria izan zaigu antzerki naturalistan erori gabe istorio intimoa kontatzeko”

ALEX GEREDIAGA,

ANTEZLANAREN ZUZENDARIA

Uchak berak sortu ditu antzezlaneko koreografiak, musika oso presente dagoen moduan bada tarterik dantzarentzat ere. “Hiru plano bereizi nahi izan genituen antzezlanen. Dantzaren bitartez maitasuna, unerik gozoeak. Bestetik, bikotearen eguneroko uneak, batez ere bien arteko elkarriketen bidez adieraziak. Azkenik, Gloriaren bakartasun uneak, soinuarekin jantziak, atmosfera ilunekin, testu intimoeekin eta mikrofonoaren erabilerarekin”.

Alex Gerediagak berak zuzendu du antzezlanaz eta bere bizipen pertsonaletatik sortu zuen ideia. “Khea Ziater abiatzea erabaki genuenean taldean ni nintzen une horretan kontatzeko zerbait zuena. Esperientzia pertsonal batetik sortu zen ideia, neronek gidatu nuen testua taldean lan egin ahala, eta nire gain hartu nuen zuzendaritza”. *Gloriaren kantua* ez da testuan soilik oinarritutako obra, taldeko lana egin ahala sortzen eta idazten joan dena baizik. Alex Gerediagak badu eskarmenturik modu horretan oholtzarako idazten, hitzari dagokionez badira karga poetiko handia duten zatiak: “Niretzat naturalena gaztelaniaz idaztea da, horregatik euskarazko bertsioan sostengu bikaina izan da Jon Gerediagaren lankidetzaz”.

Obraren une batean zera dio Gloriak: “Orain, nire maitea, joan egin zara, eta kez



inguraturik utzi nauzu. Orain, nire maitea, alde egin duzu, eta nire bihotza hutsik dago eta kez beterik. Ez dut honezkero zure musika entzuten, baina saiatzen naiz dantza egiten oraindik. Ezin dut zure musika entzun, eta nik dantzan jarraitu nahi dut, besterik ez”. Kea da, hain zuzen ere, antzezlanaren ezohiko protagonista. Kea datorkigu burura taldearen izena entzutean, kea zabaltzen dute aretoan taldeko kideek publikoa sartu aitzin, kea dator protagonisten zigarroetatik bikote harremanaren barrunbeetara.

Taldearen hurrengo pausoak

Gloriaren kantua lehen pauso modura ikusten du Alex Gerediagak: “Oso diru gutxirekin

egindako antzezlan da. Ezinezkoa izango zen proiektu hau aurrera ateratzea talde osoaren inplikazioagatik eta zerbait berria egiteko gogoagatik izan ez balitz”. Oraingoz udaberria bitarte emanaldiak eskaintzen ibiliko dira, eta dagoeneko hasi zaizkie inspiraziora jausten ideia berriak: “Taldea ibilbide luzeko jendeak osatu badu ere, proiektua abiatu berria da”. Oholtza gaineko espazioa material minimoekin osatu dute, azaltzen diren objektu gehienak adibidez birziklatutakoak dira. Espazioa betetzera jo dute aktoreen energia-ekin, Oier Ituarteren argiztapen sortzaileekin, Azegine Urigoitiaren jantziekin, musika eta dantzarekin. Soinu amplifikazioaren erabilerak da beste ezaugarri gako bat, tarteka aktoreek beren kontakizunean txertaturik erabiltzen dutena, zineak ikuslearengan sortzen duen efektura gerturatzeko balio duena.

Amodioa eta desamodioa dira *Gloriaren kantua* lanaren ardatzak, eta hurrengo lanaren nondik norakoak aurreratzeko goiz bada ere teatroarekiko amodioan oinarrituriko lanetik etorriko da. Kheako kideek dioten moduan “arte eszenikoetan sorkuntzak ematen dituen aukeren hausnarretaz baliatuz, garena eta sentitzen duguna gure ogibidearen bitartez kontatzea dugu helburu”. ■



hizkuntza
ELHUYAR
zerbitzuak

Elhuyar hiztegiak zure mugikorrean

Deskargatu **DOAN** demoak

www.elhuyar.org/hiztegiak-mugikorrean

mugikorrak@elhuyar.com



Kulturgintza

Beasaingo ruralismo posmoderno

Jazpana Fest! jaialdia ospatuko da hirugarren urtez Beasainen urriaren 28tik 31ra. Musika, skatea, saskibaloia, argazkilaritza, bideo-jokoak, film laburrak eta karaokea, eskualde oso baten inguruan dauden topikoak hausteko bidean.

UXUA LARRETXEA

Argazkiak: Garbiñe Irizar

HERRIKO MUSIKA TALDEEI jendaurrean jotzeko abagunea eskaintzea, ohikoak ez diren taldeak ikusteko aukera ematea eta eskaintza debaldekua izatea. Horiek dira Jazpana Fest! bereizten dituen hiru funtsezko ezaugarriak. Nolanahi ere, hirugarren edizio honetarako musikaz harago, eskaintza zabala proposatu dute, “Zatozte ruralismo posmodernora!” aldarritik abiatuz. Kontzeptu umoristikoa da, Jazpanako komunikazio eta azpiegitura arduradun Mikel Alvarezen esanetan, ez ordea inozentea. “Jendartean oso hedatua dago Goierri bertsolariak eta trikitilariak soilik daudela, baina hori ez da erreal. Noski hori ere bada-goela, baina baita gauza gehiago ere!”. Horren adibide gisa aipatu du herrian dagoen graffiti-larien maila. “13.000 biztanle dituen herri honetan kanpoko jende mordo dago, eta hortaz, kultura asko nahasten dira”. Beraz, nahasketa horren erakusle izan nahi du Jazpanak, txikitik handira, herritik mundura, ruralismo-tik ikuskera posmodernora jauzi eginez, baina beti ere euskaraz: “Ni beasaindarra naiz, baina

Musikaz gain askoz gauza gehiago ere eskainiko ditu Jazpana jaialdiak: skatea, graffitiak, argazkilaritza... lazko jaialdikoak dira beheko irudiok.

horregatik ez dut kultura eta ohitura tradizio-naletara mugatu beharrik”.

Ikuskera horren isla da jaialdiaren beraren izena. Antolatzaileak haren nondik norakoen berri eman digu: “Garai batean Beasain eta inguruetako gazteak baserritik herriko plazara joaten ziren bertako musika taldeen doinu eta erritmoekin dantzatzera. Talde horiek *jazz band* izenez ezagutzen ziren, baina herri hizkuntzarekin *jazpana* bihurtu zen”. Antolatzaileetako batek hitz hori proposatu zuen jaialdia izendatzeko, eta Alvarezen aburuz oso egokia da jaialdiaren espiritua ondo islatzen duelako, “mundukoari erreferentzia egiten dio, baina era berean, euskarazko sonoritatea dauka”. Gainera, lehen bezala orain ere Jazpana kalera atera nahi dute eta inguruko gazteak jaialdiko taldeen doinuen erritmora dantza egitera gonbidatu.

Herrian horrelako ekimen baten beharra zegoela dio Alvarezek, jendea biltzeko eta inplikazioz elkarrekin lan egiteko balio duelako, besteak beste. “Beasain sozialki herri arraroa da, pertsona asko dago gauzak antolatze



Hamalau talde eta DJak gustu guztientzat

Egitarau bete-betea dauka Jazpana Fest!-ek: urriaren 28an, ostirala, emango diote jaialdiari hasiera, Argazki Rally-a eta Guitar Hero lehiaketen bidez. Ondoren, kontzertuak izanen dira: Beasaingo Continuo Renacer taldea, rock gordina jotzen duen Atom Rhumba, Guadalupe Plata hirukote andaluziarra, eta Lost Chords ariko dira. Besta amaitzeko Olarius & Brothers DJ beasaindarrek musika jarriko dute.

Larunbatean, 15:00etan, 3x3 Saskibaloitxapelketa egingo da Bernedoenea aparkalekuan, eta 20:00etatik aurrera, hainbat musika talde igoko dira oholtzara, hala nola, disko berria kaleratu duten eta ikuskizun handia eskaintzen duten Los Tiki Phantoms, Iruñetik datozen El Columpio Asesino, Baionako Willis Drummond, kanta azkarrak eta zuzenak egiten dituen La Celula Durmiente,



eta, The Nekrobabies eta Cuarto de Hora talde legazpiarrak. Kontzertuen ondotik Mether & Zacker DJek egingo dute saioa.

Igandean, Skate Txapelketaren txanda izango da. Aurten, Gernika Pasealekuko frontoian gauzatuko da, “baldintza hobeak eskaintzen dituelako”. Gauean, berriz, Zestoako Grises taldea, Ainara LeGardon bilbotarra, Valentziako Los Teleplásticos eta Brigada Criminal taldeko kide ohiek eraturiko Fiachras-en zuzeneko txanda izango da, eta ondotik, Pi & Marian herriko DJak entzungo dira. Astelehenean, azken egunean, mozturro gaua antolatu dute eta Beasaingo hainbatek azken urteetan egindako film laburrak erakutsiko dituzte. Azkenik, jaialdiari amaiera emateko oso arrakastatsua izan ohi den karaoke festa antolatu dute.

prest, baina oso sakabanatuta aritu izan dira orain arte, eta horregatik gauza txikiak soilik egin izan dituzte”. Horren adibidetzat ipini ditu urteetan gaztetxean edota Goieniz zineklubean egin den lana. Horri irtenbidea emateko eta Jazpanaren gisako jaialdi bat antolatzeke asmoz hurbildu zen orduko Beasaingo Gazteria zinegotzia herriko neska mutilak ibiltzen ziren lokaletara; interesa zutenak topatu eta jaialdiaren nondik norakoak marrazteari ekin zioten. Hastapenetan bost ziren, baina apurka-apurka zeregin zehatzetan parte hartzeko prestutasuna zuten herritarrak batu zitzaizkien. “Norberak dakiena ekartzen du eta ahal edo nahi duen neurrian laguntzen du”. Jaialdia antolatzeke lanak errazte aldera ardurak oso ongi zehaztuta eta banatuta dituzte: Mikel Alvarez berarekin batera, Diego Gomez eta Pablo Sanchez aritu dira musika taldeekin kontaktatzen eta skatea antolatzen; Igor Alustizak saskibaloitxapelketaren ardura hartu du; Garbiñe Irizarrek argazki rallyarena eta diseinuarena; Marta Faus aritu da webarekin, Ekain Mujika barra eta edariekin, Jon Artola administrazioan eta Idoia Guirado Beasaingo jailetan jartzen den Jazpana txosnaren lemaizain. Gainera, jaialdiak irauten duen egunetan laurogei bat lagunak esku hartzen dute jaialdia aurrera ateratzeko. “Urtero laguntzeko prest zegoen jendea berbera zela ikusi eta boluntario sarea sortu dugu aurten”.

Udalarekin duten harremana ona dela baieztatu du Alvarezek. “Egitasmo alternatiboak antolatzeke laguntza gutxi ematea leporatu izan zaio betidanik Beasaingo Udalari, baina

**“Jendartean oso hedatua dago
Goierri bertsolariak eta
trikitilariak soilik daudela,
baina hori ez da errealia”**

MIKEL ALVAREZ,

JAIALDIKO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

egia esan gu ezin gara kexatu”. Une honetan Udalak ekonomikoki laguntzen badu ere, beharrezko diruaren erdia baino gehiago elkarrekin berak jartzen du. Izan ere, iaz Elkarte Kultural gisa erregistratu ziren, eta haren xedea

Jazpana Fest! jaialdia antolatzeaz gain, Beasainen ekitaldi kulturalak sostengatu eta antolatzea da; irabaziak jaialdia bera ordaintzeko erabiltzen dituzte, baina iaz, esaterako, sos batzuk sobratu zitzaizkiela eta erakusketara antolatu zuten argazki rallyan aurkezturiko irudiekin eta kontzertu akustiko xume bat ere muntatu zuten. Halaber, maiatzaren gaztetxearekin elkarlanean Jazpana Gaua antolatu zuten. “Aurrera begira gauza gehiago egitea da gure nahia”. Jazpana ez da isilduko beraz eta garai batean bezala, Beasaingo herria girotuko du aurrerantzean ere. ■



Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)




943 453 588 · www.sigacus.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Donostiako mendia. Bukaera. 2. **Argazkian**. Gar, lama. 3. Konparazio atzizkia. Erljioan, eskariren bat egiteko esapide. 4. Bilatzaile. Portuetan, pertsonen eta zamen ontziratzea errazteko prestatzen den eraikina. 5. ... situ, zerbait egiten den tokian bertan. Haize guztiz indartsuko ekaitz. Irribera, jostaria. 6. Aranoko auzoa (Nafarroa). Urtearen lehen egun. 7. Zumitzez egindako ontzia. Orbanak dituen, nabar. 8. Ontasunez. Gaztelako erdara.

Goitik behera:

1. Ukabilaz emandako kolpe. 2. Nekazaria. 3. Uzkur, zapaldu. Errepikatuz, loguraren eulia. 4. Urrearen sinbolo kimikoa. Agian, menturaz. 5. Australia eta Ginea Berriaren arteko itsasartea. 6. Magoa. Kilogramo. 7. ... Zedong, lider txinatarra. Kalabaza. 8. Dardarka. 9. Lipar, une aski labur. 10. Arazo edo jardun eztabaidagarri. Mugatutako denbora-bitarte. 11. Trebe, iaio. 12. Barazki mota. 13. Aranondoaren fruitu. 14. Barre. 15. Ar sortzailea.

Amorantea eta senarra

Iruñeko abokatu ezaguna Donostialdeako jatetxe dotore eta garesti batera joan da afaltzera senarrarekin. Eseri, jatekoak eskatu eta bat-batean mutil beltzaran ederra inguratu zaio emazteari, eta adatsak lantzanduz pasioz beteriko musua eman dio ezpainenetan. Senarra, ikusten ari dena sinetsi ezinik:

– Baina, baina, zer da hau, Maria Eugenia?
– Nire amorantea da –erantzun dio emazteak, lasai arraio–.
– Zure amorantea? Hau onartezina da! Banoa hemen-dik! Bihar abokatuarenean ikusiko dugu elkar, dibortzioa eskatzera noa eta!
– Lasaitu zaitez, Miguel

Ignacio! Zer ari zara esaten? Aitak oparitu zizkidan Donostiako pisuari eta Cádizeko txaletei agur esango diezula? Aholkulari zaren familiaren hiru enpresetara ez zarela itzuliko? Lasaitu gaitezen, eta neurtu ditzagun gauzak, txorakeriak esan edo egin aurretik.

Horiek entzunda senarra mututu egin da. Zerbitzariak utzitako lehen platerak jaten ari direla emazteak, ahapeka:

– Ikusten al duzu jatetxera sartzen ari den bikote hori? Bada, emakumea nire lankidea da, eta gizona bere amorantea!

Gizonak zeharretik begiratu eta emazteari:

– Ba! Gurea askoz hobea da!

Sudokuak

Erraza

4		3		7	2			1
6					1	4	5	
					3		2	8
				9	3		2	
3				1				7
		2		8	5			
8	4		3					
	3	5	1					9
7			6	5		3		2

Zaila

				3				5
	7					1	9	
9					5	6		3
			4		2	7	8	
			6	9	8			
	2	6	7		3			
7		8	5					2
	6	9					5	
2				6				

Soluzioak

Erraza

2	4	5	8	6	9	3	1	7
7	1	3	5	8	1	4	7	8
9	6	9	8	7	8	1	4	7
4	6	3	2	7	9	5	8	1
1	6	2	7	8	5	5	3	4
5	4	1	2	1	1	1	6	5
3	7	8	9	3	4	2	1	6
9	5	1	4	6	3	7	2	8
6	2	7	8	9	1	4	5	3
8	3	5	5	7	2	6	9	1

Zaila

2	4	5	8	6	9	3	1	7
1	6	9	3	2	7	4	5	8
7	3	8	5	4	1	9	6	2
8	2	6	7	1	5	3	4	9
4	5	7	6	9	8	2	3	1
3	9	1	4	5	2	7	8	6
9	8	4	1	7	5	6	2	3
5	7	3	2	8	6	1	9	4
6	1	2	9	3	4	8	7	5

Ezker-eskuin: 1. Ulla, Amaia 2. Kukutza, Su.
3. Ago, Oioitz 4. Bilan, Kai 5. In, Unakan, Alaita
6. Latsc, Urteberr 7. Saskia, Pikart 8. Onoz,
Gaztelania.
Goitik behera: 1. Ukabilko, 2. Iugina 3. Ikol, Tse.
4. Au, Ausaz 5. Torres 6. Azha, Kg 7. Mao, Kua.
8. Ikantz 9. Istant 10. Auzi, Epe 11. Abl, 12. Ieka.
13. Arin, 14. Irt, 15. Aita.



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Liburuak

KRITIKA

Hitzdeologia baterako

Hemeroteka

Aritz Galarraga

Pentsatzen dut hiztun komunitate guztiek izango dutela, gutxi-asko, hitz egiten duten hizkuntzaren gaineko kezka. Komunikaziorako biderik zuzenena denez sarri, hiztunak izan ohi du hitz egiten duen horren gaineko zalantza, arreta, jakin-mina. Are idazlea, hizkuntza lan-tresna behinena duenez, maiz kezkatu izan dute hitz, hiztegi, gramatikek, eta idatzi ere idatzi izan du horiek guztiak buruan. Egiten duen literaturak (letrak elkarri josteak) ematen baitu horrelakoei itzulipurdia egiteko, ausartzeko, ausaz, baita esku sartzeko ere. Iñigo Aranbarriren kasua da hori, *Hitzak eta giltzak* liburuarena.

Orain hamar urte kalean, Alberdania argitaletxeko Zerberri sailean (gogoratu: orotariko saiakera laburrak biltzen dituen bilduma), hizkuntzaren inguruko gogoea da *Hitzak eta giltzak*, edo hizkuntzaren parte diren hitzen ingurukoa, nahiago bada. Edo hitzetatik abiatutako hizkuntzaren gaineko hausnarketa. Eta aurrera, hizkuntza hitz egiten duen jendar-tearen gainekoa. Alegia, hitza duela irteera helmuga jakinik



Hitzak eta giltzak.
Iñigo Aranbarri.
Alberdania, 2001.
104 orrialde.
9,50 euro.

gabeko bidaia noranahiko honek. Kolpe labur, printza zorrotz, ele zoli, handik eta hemendik hartutako puskek osatzen dute Aranbarriren saiakera, orain burutazio bat, pasadizo bat gero, apunte bat hurrena. Alor asko eta askotarikoak hunkitzen ditu bertan (alor asko, baserritik hirira egin duten hitzena, adibidez). Irakurlearen gozamen eta argibiderako guztiak ere.

Argigarriak egin zaizkit orriotan erabili dituen hainbat kontu. Esaterako, politika eta hizkuntzen arteko limurkeriez, zarata ateratzeaz, arerioari hitza zikintzeaz, norberaren lexikoa sortzeaz, zaintzeaz, hedatzeaz ari zaigunean. Albistegiek, hedabideek oro har, hitzen zikintze horretan duten ardura eta egiten duten lana aitatzten denean. Ez alferrik, boterearen ahotsa horietan modulatzten dela gaztigatuko digu. Eta hori esan ondorenean nabarmenduko digu euskal prentsaren garrantzia, egunero-egunero kalean zirkulazioan jartzen duen hitz eta esamoldeen kopuruagatik bada ere, “hagitzez handiagoa literaturak izan dezakeena baino”. Eta idazle batek diosku hori.

Zail da liburuan zehar hunkitzen diren guztiak hemen laburbiltzea. Baina ezin esan gabe utzi arkeologia filologikoa baino hitzen bigarren bueltak maitago dituen Aranbarrik, hizkuntzaren gaineko kezka zabaldu dituela bertan, hitzek eta ideologiak duten harremanari buruzko bilduma honetan, saiakera labur eta emankor honetan. Laburra eta indartsua izatea baita luze eta eder-jantzia eraisteko era bakarra.



tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Kalte.
Kalte.
Autoekoizpena.
Iraupena: 47'22".
10 euro.

Metala, melodia eta gaztetasuna alde

TALDE BIZKAITAR HONETAKO kideak gazteak dira, baina Kaltek baditu dagoneko urte batzuk eta hainbat diskoetxetan ibili ostean, honako hau, hirugarren lana, autoekoiztu egin dute, txukun gainera. Metala lantzen dute, melodia askorekin eta hardcore melodikoarekin flirteatzeko gai ere badira, tarteka Berri Txarrak-ek zabaldutako bideetatik barrena. Nire arreta deitu duen gaztetako bat da kantetako askotan bikote harremani

buruz idazten dutela, estilo horietan ez baita hain ohikoa; baina zergatik ez, barrutik ateratako istorio sinesgarriak kontatzea da garrantzitsua! Aipatutako ildoak beraiei oinarria badira ere, Latzen gogoratzen duten baladak ere badira, Aitor Uriarteren trazako ahots erregistro aberatsak, elektronikarekin jolasak, baita pasarte akustikoak ere.

www.kalte-taldea.com

Jonathan Exposito - **Kalte**

«Bizitza aldapa konstantea da baina libre sentitzen bazara, gauza asko lor ditzakezu»

Zerk egiten dizue "kalte"?

Gauza askok, baina batez ere diskriminazioak eta hipokresiak.

Zer gertatzen da "larrosak beltzez janzten" direnean?

Azaldu nahi dugu dena zaila ipintzen denean, beti daukagula pertsona bat gure ondoan.

Hollywood. Zein da zuen helburua taldearekin?

Beti izan da berdina. Gure istorioak idatzi eta jendeari kontatu, diskoan zein kontzertuetan. Publikoak eduki dezala aukera entzuteko.

"Maite-mintzeak" kalte eta inspirazio asko eragin dizue? Harremani buruzkoak dira kanta gehientsuenak...

Kanta bat idazterakoan, bizi dudana historia bat kontatzen dut. Denak biografikoak izaten dira. Eta maitasuna gai oso garrantzitsua da nire bizitzan.

Latzen, Sen eta Uneren eragina antzematen dut baladetan eta ahots melodietan.

Institutuan, lehenengo akordeak ikastea, influentzia izan dira talde horiek.

Zer eragin izango du zuengan Igor Su Ta Garreko baxu jotzaile berria izateak?

Berarentzat esperientzia oso berezia izango da, Euskal Herriko talde handienetarikoa batean egongo da eta. Askok ikasiko dugu denok.

Autoekoizpenaren alde egin duzue eta lan dotorea burutu. Indartsu eta motibatuta al dago taldea?

Orain gure momentu goxoan gaude. Diskoa guk ekoiztu dugu eta horregatik, dena oso txukun eroan dugu. Konposaketa, produkzioa, soinua, irudimena, argazkiak, edizioa...

Badira xamurtasun bereziagoa duten abestiak, *Segundu bat* eta *Malkoz bete dugu gela* kasu. Erraz irteten dira?

Kalteren erreperitorioan, kanta alaiagoak dira batzuk eta beste batzuk tristeagoak; abesti gogorak dira aipatu dituzunak, eta zaila da horiek idaztea.

Gure izarra oso kanta konpletoa iruditu zait.

Melodia eta indarra, biak ditu. Bizitza aldapa konstantea da baina bakoitza bere buruan, bere barnean libre sentitzen bada, gauza asko lor ditzake. ■



Kalte taldeko kideak:
Jonathan Exposito eskuinetik lehengoa da.



Ezpalak

JON TORNER

Nafarroako Arte Garaikideko Museoa 2013an irekiko dute



NAFARROAKO Arte Garaikideko Museoa / Nafarroako Unibertsitatea Museoa 2013ko udazkenean irekiko ditu ateak. Proiektuak 25 milioi euroko

aurrekontua izango du, eta hura eraikitzeak obrak bi aste barru hasiko dituzte. Nafarroako Unibertsitateko campusean eraikiko den museoa Rafael Moneo arkitektoak diseinatu du, eta 11.000 metro koadro izango ditu orotara. Maria Josefa Huarteren bildumako arte-lanez gain, unibertsitatearen argazki bilduma ere jasoko du museoak. Aurrekontuari dagokionez, bestalde, %60 entitate pribatuek ordainduko dute, eta gainerako %40a ekarpen publikoek eta baliabide propioek.

● **Lourdes Otaegi literatura irakaslea euskal pizkundeaz mintzatu da Euskonews & Media webgunean:** «1930ean Espainiako Kongresuan sufragio femeninoa onartzen da, eta konturatu ziren hor bazegoela beste hainbat boto (...) Boto merkatu bat bezala agertu ziren emakumeak (...) Eusko Ikaskuntzan, bat-batean, emakume gehiago sartu ziren, prentsan emakume firma gehiago zeuden. Orokorrean konturatzen ziren zenbait sentimendu transmititzeko eraginkorrak zirela emakumeak (...) Ez zen modu naturalean gertatu, baina interes horien ondorioz lehen emakume idazleak agertu ziren plazara».

Ur Apalategik

(Paris, 1972) irabazi du narratibako Euskadi Saria, *Fizikioaren izterrak* (Susa) liburuarekin. Epaimahaikideen iritziz, “zazpi ipuinez osaturiko bilduma honetan, maisutasunez erakusten ditu Apalategik giza harremanen argi-ilunak”. Euskarazko haur eta gazte literaturako Euskadi Saria, bestalde, Miren Agur Meabek jaso du, *Errepidea* (Erein) lanarekin.



Jasper Johns

artista estatubatuarak 1960ko hamarkadik aurrera egindako 28 grabatu bildu dituzte Bilboko BBK aretoan. “Akuafortez eginiko grabatuetan pinto-

reak urteetan zehar izan zuen bilaketa lana ikus daiteke, XX. mendeko sorketa plastikoa atzekoz aurrera jartzea lortu arteko lana”, dio Martine Soria erakusketaren komisarioak: “Irudi guztiek une bortitz eta baliotsuak erakusten dituzte, emozioz beterikoak, grabatuen originaltasuna isladatzen duten obra erraldoi eta apartaren erakusle baitira”.

Su Ta Gar talde beteranoak *Ametsak pilatzen* diskoa plazaratu du, bere ibilbide luzeko hamaikagarrena. Aurkezpen birari ekin dio jada: hilaren 29an Bilboko Kafe antzokian joko du, azaroaren 5ean Aiziritzeko (Nafarroa Beherea) plazan, 12an Elizondoko Lur aretoan eta 19an Gasteizko Jimmy Jazz aretoan.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

CRÉDITOS UPV EHU KREDITUAK

DANTZA GARAIDEA

SLEEPWALK COLLECTIVE
As the Flames Rose we Danced to The Sirens, The Sirens
Azaroaren 4an. 19:30ean
Sarrera: 6€ (kide elkartuak, 3€)

Artium +SOUND

SANTIAGO LATORRE
Kontzertua
Azaroaren 12an. 21:30ean
Sarrera: 6€ (kide elkartuak, 3€)

Artium
Vitoria-Gasteiz
www.artium.org

Abarrak

MIKEL GARCIA

Rosebud

“TIRA, hitz bakar batek ezin du bizitza oso bat azaldu”, dio kazetariak, Charles Foster Kanek hil aurretik jaurtiriko berbaren (“Rosebud”) esanahia ezin asmatu. Bizitza osoa baino, izan ez duen, izan zezakeen, erauzi zioten bizitza laburbiltzen du protagonistaren azken hitzak, baina ez dugu misterioa gehiegi argituko, akaso baten batek ez baitu oraindik ikusi Orson Wellesen *Citizen Kane* filma. Aurtun 70 urte bete ditu pelikula eta aitzakia egokia izan daiteke urte mordoxka pasatuagatik indarririk galdu ez duen lan honetaz (bir)gozatzeko.

Erantzunen peskizan, Kane gertutik ezagutzen zuen jendea elkarrizketatuko du kazetariak, hildakoa errukiz, gorrotoz, miresmenez gogorazten duen jendea. Eta erretratu osatua lortu arren, sakonean ez dugu jakingo benetan zer bilatzen zuen Kane eszentrikoak, mundua aldatu nahi ote zuen, boteretsu izan, herritarren maitasuna eskuratu... Hori guztia desiratzen zuen beharbada, jauregitzar batean bakarrik amaitu zuen 37 egunkariren jabeak. Ikuslearen jakin-mina handituz joango da, protagonistaren nortasun konplexua estalgabetu ahala, anker-za bezain erakargarria: harroa, despota, handinahia eta egozentrikoa, nahierara erabiltzeko tresna pertsonaltzat zituen egunkariak, berriak asmatuz, iritzi publikoa manipulatzuz, ingurukoak mehatxatuz; neurrigabe xahutzen zuen dirua; eta populismo merkearekin irabazi nahi zituen hauteskundeak, berak zekielako zer den herriarentzat onena. “Mundu guztiak pentsatuko du pentsatzeko nik agintzen diodana”. Wellesek zuzenean gaztigatzen ditu –gaur egun oraindik dirauten– sistema politikoa, ekonomia kapitalista, kazetaritza erdua. Eta errealtateak maiz fik-



zioa gainditzeko duenez, William Randolph Hearst kazetari estatubatuarra dago erretratu gupidagabe horren atzean –pelikula boikotatu zuen Hearstek–: hedabide inperio baten buru, sentsazionalismoaren sortzailea izan zen, tresna politiko gisa erabili zituen bere komunikabideak eta eskandaluetan eta manipulazio mediatikoan oinarritu zuen jarduna. 1897an, Kuban zuen marrazkilariak esan zionean dena lasai zegoela eta ez zela gerrarik izango, ondorengoa erantzun zion Hearstek: “Zuk irudiak jarri eta nik jarriko dut gerra”.

Teknikoki goraipatua izan da *Citizen Kane*, garairako berritzailea. Izaerak, egoerak eta botere-harremanak fin irudikatzen ditu kamerak, angeluen, enkoadraketen, perspektiben, sakonerraren bidez, eta dotorea da argi-ilunen jokoa, itzalean uzten duenaren garrantzia eta sinbolismoa. Gezurra badirudi ere, publikoa harrapatzeko gaitasuna duten irudi ahaltsuok 25 urterekin errodatu zituen Orson Wellesek. Bere lehen filma izan zen eta askatasun osoz egiteko baimena eman zioten, irradian arrakastatsu aritu ostean. *Munduen gerraren dramatizazioa* egin berria zuen irradian, estatubatuar andana beldurra airean jarritz, estralurtarren inbasioa benetan bizi zutelakoan. Horrelakoengatik, historiara pasa da *The land of the Basques* dokumentalaren autorea.



Citizen Kane. Zuzendaria: Orson Welles. Gidoilariak: Orson Welles, Herman J. Mankiewicz. Aktoreak: Orson Welles, Joseph Cotten. 1941, AEB. 119 min.

EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Zabalgune Plaza, 5
48009 Bilbao
☎ 94 423 1500
Faxa: 94 424 3947
eudel@eudel.net

www.eudel.net

Osasuna

JABIER AGIRRE

Zergatik zaude beti nekatuta?



PERTSONA ASKOK, emakumeak izan ohi dira batez ere, neke handia nabaritzen dute egunean zehar, eta neke horren atzean fibromialgia egon daitekeela ahaztu gabe ere, sarritan kontrolatzeko askoz errazagoak gertatzen diren beste hainbat arrazoi izan daitezke.

Bizitzaren une jakinetan, 50 urteko muga pasatu ondoren adibidez, edo emakumeek ume bat izan eta gero, edo nerabezaroan, oso ohikoa da nekeak erabat jota egotea. Askok dira neke ulertezin hori sor dezaketen arrazoiak, eta ezinezkoa hemen denak aipatzea, baina kontrolatu beharreko egoera batzuk aipatu nahi nituzke.

Elikadura desegokia

Hainbat arrazoi direla medio, pertsona ugariak dieta bereziak egitea erabakitzen dute, kilo batzuk galtzeko asmotan. Eta dieta horiek ez daudenean behar bezala egokituak, edo aspergarriak gertatzen direnean, osasun-arazoak ager daitezke.

Loezina edo apnea

Gutxi edo gaizki lo egitea –sarritan arnasa hartzerakoan etenaldiak edukitzeraino– izaten da, askotan, nekatuta sentitzeko arrazoiak. Adu bati kontsultatzea komeni da, are Loaren Unitate batean txanda eskatzea ere, gaizki lo egiteak ondorio larriak ekar baititzake osasunerako.

Depresioa

Nekea eta adorerik eza edo gogoaldarte eskasa estu-estu lotuak joan ohi dira.

Anemia

Burdina faltagatik izan daiteke –haragi gorriak, muskuiluak, almejak eta fruitu lehorrak jatea gomentatzen da–, baina baita azido folikoaren eskasiagatik ere –arreta berezia haurdun dauden emakumeetan–. Zure eguneroko dietan har itzazu behar adina hosto berdeko barazki, fruta eta intxaur. Hilekoak oso ugariak direnean odoljarioak gerta daitezke, baina baita ustekabeen ere, diagnostikatu gabeko ultzera baten edo hiatoko hernia baten eraginez.

Gernuko infekzioak

Kasu hauetan sukarra eta ahuldadea ere agertuko dira aldi berean.

Tiroideetako alterazioak

Nekearekin batera pisu asko irabaziko bazenu, itxuraz horretarako arrazoirik gabe, onena medikuarengana

joatea da, agian zure tiroideko guriak motelegi funtzionatzen duelako.

Glukosa-maila asaldaturik dago

Azukrearen gorabeherak energia falta eta nekea eragiten dute. Bere egoera ondo kontrolatzen ez duten pertsona diabetikoetan gertatu ohi da, baina baita ezer jan gabe debora luzea egin ondoren ere.

Behar adina ur edaten al duzu?

Aurreko egunetan gorakoak edo beherakoak izan badituzu, litekeena da indarrik gabe sentitzea. Deshidratatuta ote zauden jakiteko egizu hurrengo proba: zapaldu hatz batekin zure larruazala, eta hor azaltzen den marka edo orban zuriak desagertu aurretik segundo batzuk irauten badu, edan ur edo likido gehiago, deshidratazioari aurre egiteko.

Kontuz kafearekin

Nekatuta gaudenean normala da pizgarriak hartzea, eta kafea da estimulatuzaileetan gehien ezagutzen dena. Baina kafe gehiegik okerrera eramango du egoera. Hobe zenuke eguna gosari on batekin hastea, eta zure kafesnea ezti edo erregina-jelekoilarakada handi batekin gozatzea.

Nola jakin neke kronikoa ote den?

Neke kronikoa gehienbat 30-50 urte bitarteko emakumeengan agertzen da, sei hilabetetik gora irauten du eta ez da atsedenarekin arintzen. Aurrez aipatutako arrazoi guztiak baztertu ondoren bakarrik pentsatuko du medikuak diagnostiko horretan. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Zurikineta

HERBEHEREETAKO ontzi-jabeak XVII. mendean idi-bihotzen (*Tulipa* sp.) espekulazioan bizi ziren artean, Euskal Herrikoek bi eratako ontziak tresnatzen zituzten. Batetik han eta hemen erosi eta saldu, garraioan zebiltzanak. Arrantzarakoak, besteak.

Balea eta bakailaoa ziren garai hartan arrain desiratuena, emankorrenak. Diruaren arrantza. Negozioa aldatu egiten da, baina, eta hegaluzea eta bere antza dutenak dira egun dirua egiten dutenak. Geure itsasoa an arrantza horretan ari direnak banaka-banaka harrapatzen dituzte arrainak. Antigoaleko eran. Gaur egun beita edo karnata bizia erabiltzen da amuetan, baina garai bateko artea bestelakoa zen.

Arrain handi horiek ontzira igotzeko gaurko pita lodirik ez zen garaietan altzairuzko haria erabiltzen zen. Haren muturrean lotutako amuak zeraman triki-mailua ez zen txori-kakaren hurrengo, maisulana zen. Artaburua, *Zea mays*, zuritzerakoan kendutako zurikinarekin biltzen zen amua; gero izter gainean, txarrantxa gisara, *Dipsacus fullonum*, astakarduarekin igurtziz hariak ateratzen zitzaizkion zurikinari. Ondo-

ren xingola berde bat lotzen zitzaion. Itsasoa baporea aurrera doan eran, txanbergen barrena heldutako harien muturreko amu hauek txipiroiaren antza dute, hegaluze eta hegalaburren gutizia.

Arrantzale maisu haien mahoizko galtzetan, izterrean, hariz jositako adabakiaren gaineko adabakiaren imajina ezaguna egingo zaio askori. Astakarduak mahoia ere saretzen baitu. Amuaren artista haiek gehienak diru pixka bat egin asmotan baserrietatik etorritakoak ziren. Artotan iaioak, baita zurikinetan ere. Etxean bezala ontziko lotako etzalekuetan zuten almadraka edo koltxoia zurikinez egindakoa izango zuten.

Urte sasoi honetan, hemendik aurrera bilduko diren artaburuetatik sortuko diren zurikinak badu, bai, baduenek, bere paisaia kulturala: artasoroak, sutondoko artazuriketa kontuak, koltxoia, amua, astakardua, mahoizko galtzetako izter pareko adabakia, hegaluzea eta soldata.

Baserri batean baino gehiagotan dago zurikineta izena duen bazterra. Izan ere, zurikina, kondar ustekoa, lehengai.



JAKOBA ERREKONDO

Pasio loreen pasioa

Passiflora caerulea, pasio lorearen landarea dotorea da. Igokaria da, hosto berexiak ditu, baina lorea da benetan deigarria: usain gozoa du eta berebiziko egitura: ileak, kolo-reak, formak... Bere garaian izena eman zionak Jesukristoren pasioaren ikurrak ikusi omen zizkion (iltzeak, arantza koroa, apostoluak, etab.). Gure etxekoa ikusten dutenei beste pasio batez hitz egiten diet. Lore honek ematen duen fruituarekin, marakuiarekin, itzelezko zukua egiten bai da, beste pasio batzuk sustatzen dituena.

Ez naiz bada, duela egun gutxi batzuk, Bergara aldean "Hamar mandamentu loria" deitzen diotela enteratu. Teman, segi sektaren teman!

Argazkikoak pasio lore bilduma dotorea duen lagun batek oparitutako lore sorta polita. Bakoitzak bee forma eta koloreak eta, batez ere, usaina. Pasio loreen bilduma, hori bai pasioa!



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

FBIko buruak beleari ipurbeltz

AEB, 40KO HAMARKADA. FBIren sortzaile eta zuzendari John Edgar Hoover (1895-1972) gay zelako zurrumurrua zabaltzen hasi zen. Ustez, Clyde Tolson (1900-1975), FBIko zuzendariaren albo-koa, zuzendariaren alboan egoten zen lana amaituta ere. Tolson eta Hoover maitaleak zirela, alegia.

Hooverren biografian, Richard Hackek dio FBIko buruak Dorothy Lamour aktorearekin harreman pertsonala izan zuela 30eko hamarkadaren bukaeran eta hurrengoaren hasieran. Eta 40ko hamarkadan ekitaldi publikoetan behin baino gehiagotan Lela Rogersekin batera agertu zen (Ginger Rogers aktore eta dantzariaren ama dibortziatuarekin). Hooverren inguruko askok harekin ezkonduko zela uste zuten, baina ez zen ez Lela Rogersekin ez beste inorekin ezkondu.

Aditu batzuek haren homosexualitateari buruzko zurrumurruak ukatzen dituzte, eta beste batzuek, aldiz, baieztatutzat jotzen. Hooverrek berak zioen Tolson bere *alter egoa* zela. Ia egunero harekin bazkaltzen eta afaltzen zuten, gauez elkarrekin joaten ziren klubetara, eta ia 40 urtez elkarrekin joan ziren oporretan. Hoover hil zenean, FBIko



Clyde Tolson (ezkerrean) eta John Edgar Hoover (eskuinean), urte luzez aritu ziren lanean, eta aisia ere partekatu zuten. Maitaleak zirela dio hainbat adituk.

zuzendari kargua Tolsonek hartu zuen, egun bakar batez izan bazen ere: biharamunean, Nixon presidenteak L.P. Gray izendatu zuen FBIko buru. 551.000 dolarreko ondarea ere Tolsonentzat izan zen eta Hooverren etxera aldatu zen. Clyde Tolson 1975ean hil zen, eta Kongresuaren hilerrian hortzi zuten, Hooverren hilobitik hurbil.

Roy Cohn fiskalak –gay eta komunisten ikerketan Hooverrekin aritutakoa– Hoover “bere sexualitateak izututa” bizi zela uste zuen, eta beldur horrek ez ziola harreman sexual egonkorrak izaten uzten. Bere homosexualitateari buruzko ezer ira-

dokitzen zuen oro jazartzen eta mehatxatzen zuen FBIko zuzendariak. Baina horixe bera besteen aurka erabiltzeko izurik ez zuen. Esaterako, Adlai Stevenson gay zela zabaldu zuen, gobernadore liberalak presidente izateko 1952an abiatu zuen kanpaina kaltetu asmoz. Eta bere artxibo zabaletan Eleanor Roosevelt maitale lesbianeia buruzko txostenak ere topatu dira. 1932 eta 1944 urteen artean AEBetako lehen dama izandakoari xantaia egiteko aukera eman zion horrek; beti ere, Clyde Tolson alboan zuela. ■



Arrastoak

Arturren mahai biribila Stirlingen egon daiteke

JOHN BARBOUR poetak Artur erregearen mahai biribila “Stirlingen hegoaldean” zegoela idatzi zuen 1375. urte aldera. Eta berriki, arkeologo talde batek, Eskoziako eskualde horren azterketa geofisikoa egin ondoren, mahai ezaguna Stirling gazteluko bara-

tzeetan egon daitekeela jakinarazi du, argazkian ikusten den forma geometriko horren azpian, hain zuzen. Orain radar bidezko azterketa egin beharko dute Artur erregea eta haren zaldunak biltzen ziren mahaia hortxe dagoela baieztatzeko.



POST.DLF

Oinarrizko errenta

Eskubide eskean oles egitera derrigortuak

Langabeziaren gorakadak eta langabezia saria agortzeak, milaka herritar administrazioaren laguntzen menpe utzi ditu. Baina laguntza hori jasotzeko baldintzak gogortu nahi dituzte gobernu autonomikoek. Eztabaida segituan piztu da, oinarrizko errenta eskubidea den arren, eskean ibili behar izango baitira asko eta asko.

URKO APAOLAZA



ARGAZKI PRESS / JON HERNÁEZ

Kontzentrazioa Bilbon, Eusko Jaurlaritzako delegazio aurrean, murrizketa sozialak salatzeko.

AZKENEKO LANGABEZIA DATUAK ez dira batere onak izan Hego Euskal Herrian. Espainiako Lan Ministerioak argitaratu zituen iraileko emaitzak eta 2.388 pertsona gehiago inskribatu ziren langabeziaren zerrendan. Zerbitzu eta kontratuetan sasoian

sortzen duten desoreka garaia igaro ondoren, errealitateak gogor astindu du —beste behin ere— lan merkaturak, eta azkenaldiko murrizketa sozialek langabeziaren igoeran zerkusi handia dutela onartu behar izan dute arduradun politikoek. 2008ko abuztuaren krisia lehertu

baino pixka bat lehenago, 107.000 langabetu zeuden lau lurraldeetan; hiru urte geroago 184.524 euskal herritar daude lanik gabe. Ipar euskal Herrian, aldiz, 2011 hasieran 17.000 lagunetik gora ari ziren lana bilatzen, Baionako Merkataritza eta Industria Ganberaren arabera, lan

egiteko moduan diren biztanleen %8,4.

Datu orokorren itzalean igaro ohi den beste informazio esanguratsu bat ere egin zuen publiko Espainiako Lan Ministerioak: langabezia saririk gabe dauden pertsonen kopurua. Hala, 112.362 lagunek dute gaur egun dagokien “paroa” bukatuta, langabetu guztien %61a. Portzentaje horren bilakaera goranzkoa izan da azken urteetan (ikusi beheko grafikoa), epe luzeke langabetuak gero eta gehiago baitira. Ondorioz, handitzen ari dira eskusio soziala jasateko arriskuan dauden pertsonen kopurua eta oinarrizko laguntza ekonomikoa behar dutenena. LAB sindikatuak berriki egindako kalkulu baten arabera, hego euskal herritarren %19a pobrezian eta sozialki baztertuta egoteko zorian legoke, Europar Estrategia 2020 programaren baitan harturiko datuak kontuan izan da behin behin.

Guraizeak oinarrizko errentari

Testuinguru horretan, berebiziko garrantzia dute gobernu autonomikoek ematen dituzten oinarrizko errentek, normalean 650 euro eta 900 euro inguruan, seme-alaben arabera. Nafarroan oinarrizko errenta lortzeko eskaerak bikoiztu egin dira azken urteetan eta 2011n 9.299 eskaera jaso dituzte. Errenta ordaintzeko arazoak izaten ari da Nafarroako Gobernua; aurtengo eskaeren erdiak oraindik ez ditu aztertu eta bost hilabeteko atzerapenez ari da ordaintzen.




Langabetuen asanbladak Barakaldon egindako parodia, bazterketa soziala eta pobreziaaren kontra protestatzeko.

EAEko kasuan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) ematen du Eusko Jaurlaritzak. Errenta honen inguruan eztabaida bizia sortu da. Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak diru-sarrera hori erregulatzen duen legea erreformatzeko proiektua martxan jarri baitu. Aurten 55.020 lagun ari dira jasotzen diru hori –iaz baino %13 gehiago– eta erreforma aurrera ateraz

gero horietako 2.500 inguru kanpoan geratuko liratekeela salatu dute pobreziaaren kontrako kolektiboek, hiru urtez herri berean errol-datuta egoteko baldintza ez dutelako betetzen, batez ere. Gemma Zabaleta sailburuak azaldu duenez erreformak ziurtatu nahi du lan egiteko aukera duenak errenta ez kobratzea. Sailburuaren iritziz babes sozialeko sistema “kiebran dago”, bere ustez sostenga ezina delako. Zabaletaren saila aspaldi hasi zen laguntza sozialetan egon litezkeen balizko “amarruak” pertsegitzen. Urte hasieran 6.200 lagun geratu ziren laguntza jaso gabe, Jaurlaritzak kasu guztiak gainbegiratu zituelako eta irregulartasunak topatu zituelako, horietako gehienek dirua jasotzeko

Langabetuak Hego Euskal Herrian



Langabetuarentzako mikro-gida

LANGABEZIA SARIA ZEINEK ESKA DEZAKE?

Paroa kobratu ahal izateko bi baldintza nagusi bete behar dira: legalki langabezian egon eta gutxienez hamabi hila-betez kotizatu, langabezian geratu aurreko sei urteetan.

ZEIN DIRU-KOPURU KOBRATZEN DA?

Lehenengo sei hilabetetan, langilearen oinarri arautzailearen %70 jasotzen da. Hortik aurrera %60a jasoko du langileak. Oinarri arautzailea kalkulatzeko da azken 180 egunetako kotizazio oinarriak eta kontingentzia profesionalak gehitu eta 180 zenbakiaz zatikatuz. Dena den, badaude gutxiengo eta gehiengo batzuk: 2011n sariaren hileko kopuru minimoa 497 euro da (seme-alabarik zaintzan ez izanez gero) eta maximoa 1.397 euro (bi seme-alaba edo gehiago zaintzan izanez gero).

Kopuru gordinari bi kenketa egiten zaizkio: Gizarte Segurantzaren kotizazioa eta IRPFaren erretentzioa.

ZENBAT IRAUTEN DU SARIAK?

Azkeneko sei urtetean egindako kotizazioaren arabera irauten du sariak. Esaterako, 360-590 egun artean kotizatuta izanez gero, 120 eguneko saria jaso liteke (lau hila-bete) eta 2.160tik gora kotizatuta izanez gero 720 eguneko saria (bi urte gehienez ere).

HAMABOST EGUN ESKAERA EGITEKO

Dagokien langabezia saria jaso nahi duenak enplegurako bulegoan izena eman beharko du, lan bila dabilela ziurtatzeko, eta hamabost egunen buruan egin beharko saria jasotzeko eskaera.

NORK DU LAGUNTZARAKO PRESTAZIOA JASOTZEKO AUKERA?

Langabetu batek ez badu langabezia saria jasotzeko adina egun kotizatu, subsidio edo laguntza prestazioa eska dezake; Espainiako Gobernuak administrazioak ematen du. Horretarako, beharrezkoa da gutxienez hiru hilabetez (seme-alabarik izanez gero) edo sei hilabetez (seme-alabarik ez izanez gero) kotizatzea. Kasu haue-tan, laguntzaren iraupena eskala honen bidez kalkulatzeko da: 90 eta 119 egun kotizatuta izanez gero, hiru hilabeteko laguntza; 120 eta 149 egun kotizatuta, lau hilabeteko laguntza; 150 eta 179 artean kotizatuta, bost hilabete; 180 egun edo gehiago kotizatuta, baina zaintza-ardurarik gabe, sei hilabete, eta zaintza-ardure-kin 21 hilabete.

Laguntza hau jasotzeko eskubidea ere badute langa-bezia saria agortu eta zaintza-ardurak dituzten pertso-nek edo 45 urte baino gehiago dituztenek (seme-alaba-rik izan ez arren). Edonola ere, laguntzaren iraupena 18 eta 30 hilabete arteko izango da.

Beste zenbait kolektiborentzako laguntzak badaude. Hala nola, kartzelatik irten direnek, genero biolentziaren biktimek eta abar. Langabezia laguntza zabalduena 52 urtetik gorakoentzako da, euren lan bitiztan sei urtez kotizatuta izan behar dute, hala ere.

Laguntza honen diru kopurua urtero eguneratzen da. 2011n hilean 426 euro dira.

Daniel Udalaiz

eskubidea berreskuratu zuten baina.

Urriaren 18an Eusko Legebil-tzarreko Gizarte Gaietako batzor-dean onartu zen DBEa lortzeko baldintzak aldatzea, PSEren eta PPren babesarekin. Egun berean Euskal Herri osoko ehun gizarte eragile baino gehiagok (sindika-

tuak, alderdiak, langabetuen asan-bladak, arrazakeriaren kontrako taldeak, auzo elkarteak, pobrezia-ren kontra sareak...) atzera egiteko exijitu zioten Eusko Jaurlaritzari eta salatu zuten baldintza berriek "pobrezia kriminalizatzea" dutela helburu.

Aurreikuspen guztien arabera,

langabeziak gorakada nabarmena izango du datozen hilabeteetan. Negu gorri honetan lanik gabe gera litezkeen milaka herritar, behin lan-gabezia saria agorturik, eskubidea dena eska-tzeko *oles* egitera joan beharko dira adminis-traziora. ■





G-PUNTUA

www.gpuntua.com



final-laurdenak

2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

HONDARRIBIA

2011-10-29 Jostaldi pilotalekua / 17:30

Bertsolariak:

AITOR SARRIEGI, ALAI MARTIN, IÑIGO IZAGIRRE, AMAIA AGIRRE, NAHIKARI GABILONDO, HARITZ CASABAL

IDIAZABAL

2011-10-30 Igaondo pilotalekua / 17:30

Bertsolariak:

JON MARTIN, UXUE ALBERDI, NEREA ELUSTONDO, AINHOA AGIRREAZALDEGI, FELIX ZUBIA, OIER AIZPURUA



Sho Hagio
Soziologo japoniarra

«Euskal janaria, musika eta kirola dira japoniar gazteei interesatzen zaizkienak»

Ikasketaz ekonomialaria da, baina soziologia arloan egiten du lan Sho Hagiok. Tokioko Unibertsitatean ikasten ari zela, euskararekin lehen enkontrua izan zuen. Hortik aurrera, harreman estua hasi zuen Euskal Herriarekin. Aurki hemen izango da.

Testua eta argazkiak:

GONTZAL AGOTE

SHO HAGIOK hainbat egonalditan bere burua guztiz euskaldundu eta euskararen berreskurapenerako mugimendu soziala ikertu zuen. Gaur egun, Euskal Herriaz eskolak ematen ditu Nagoyako Unibertsitatean eta Euskal Herriari buruzko liburu bat ari da amaitzen.

Azken aldian ez duela gehiegi hitz egin eta bere euskara nahiko herdoilduta dagoela dio. Baina primeran moldatzen da, ahoskera bereziarekin. Adeitsu hartu gaitu eta Kyotoko inguruak erakutsi dizkigu. Tenplu eta lorategien lasaitasun ederrean, gure begientzat ikusezinak diren kontu asko azaldu dizkigu. Te etxe batean hartu dugu atsedenaldia, eta orduan jarri dugu martxan grabagailua.

Zer dela-eta hasi zinen Japonian euskara ikasten?

Askotan galdetu izan didate hori, eta ez dut erantzun argirik. Nik esango nuke kuriositate intelektuallagatik hasi nintzela. Orain dela 25 urte baino gehiago Tokioko unibertsitate batean, kasualitatez, kurtso berezia, ez-ofiziala, aurkitu nuen eta hasi egin nintzen. Irakaslea Suzuko Tamura zen, gaur egun ohorezko euskaltzaina.

Nolakoak izan ziren lehen urratsak?

Irakasleak metodo komunikatiboa



Euskal Herrirako lehen bidaian, trenean, *Txoriak txori* abesten etorri zen zumaia batzuekin. Euskaldunekin izandako lehen harremana izan zen.

erabiltzen zuen, garai horietan metodo hori oso arraroa zen Japonian. Lauzpabost ikasle ginen kurtsoan, eta astean behin elkartzen ginen, 90 minutuz jasotzen genituen eskolak, euskara hutsean. Lehenengo egunean irakasleak bi

hitz erakutsi zizkidan, “bai” eta “ez”. Jalgi Hadi metodoa erabiliz eta gauzak entzunez ikasten genuen, etxeko lanik ez zen.

Eta hortik Euskal Herrira abiatu zinen...

Bai, horrela bi urte pasa ondoren Euskal Herrira joan nintzen, Parise-tik Hendaiara trenez. Han sei gazte ziren; bat-batean Mikel Laboaren *Txoriak txori* kantatzen hasi ziren. Nik dagoeneko abesti hori menperatzen nuen, Japonian ikasia nuelako eta parte hartu nuen. Haiek guztiz harrituta gelditu ziren, hori izan zen nire lehen harremana euskaldunekin. Haien etxera gonbidatu ninduten, Zumaiara, horrela hasi zen nire harremana Euskal Herriarekin. Hortik aurrera, hainbat euskaltegi eta barnetegitan egin nituen ikastaroak.

Euskara menperatzen zenuela, eta Japoniara itzulita, nola moldatu zinen euskara bizirik mantentzeko? Internetik ez, eta euskaldun gutxi inguruan...

Batez ere eskutitzak idatziz, mintza-praktikarik egiteko aukerarik ez nuen. Horregatik, Euskal Herrira bi edo hiru urtero joaten nintzen arren, hara ailegatuta lehenengo egunetan zailtasunak izaten nituen euskaraz hitz egiteko. Baina zuei, euskaldunei esker, mantendu ahal izan dut euskara bizirik.

Eta ez duzu inoiz euskara galtzeko arriskurik sentitu?

Zuek ez didazue halakorik egiten utzi [irri egin du].

Euskal Herriari diozun zaletasunak bultzatuta, orain dela urte batzuk Tokioko Euskal Etxean hartu zenuen parte.

Orain dela bizpahiru urte sortu zen, euskaldunek eta japoniar gutxi batzuek bultzatuta, nik aholkulari gisa laguntzen dut Euskal Etxean. Gehienbat, Japonian bizi diren euskaldunak hurbilduz gero, Euskal Herria eta Japoniaren arteko harremanak sendotzea da helburu nagusia. Hori zen gure asmoa, baina aurtengo lurrikararen eta afera nuklearraren ondorioz euskaldun

gehienak Japoniatik joan ziren, batzuk lanpostua galdu zutelako, beste batzuk ez zirelako seguru sentitzen. Tokioko Euskal Etxearen egoera ez da sobera ona, baina hemendik aurrera saiatuko gara berriro martxan jartzen.

Zure kasua salbuespena da Japonian. Oro har, japoniarrek zer dakite euskaraz eta Euskal Herriaz?

Tamalez, munduan beste lekuetan gertatzen den bezala, hemen jasotzen ditugun berri nagusiak ETArekin lotutakoak dira. Azken urteotan, bereziki Guggenheim Museoari esker, kanpotik ikusita Euskal Herriaren itxura asko aldatu da. Orain dela hogeitaz urte Euskal Herriarekiko japoniarren interesak nagusiki hizkuntzarekin edo politikarekin zeuden lotuta. Gaur egun ez da hala gertatzen, nik euskal kulturaren trinitatea deitzen diodana da interes gehien pizten duena: euskal janaria, euskal musika, eta euskal kirola. Horiek dira gaur egun Japoniako gazteei Euskal Herriaz interesatzen zaizkienak.

"Tokioko unibertsitate batean, kasualitatez, euskara-kurtso berezia, ez-ofiziala, aurkitu nuen eta hasi egin nintzen. Irakaslea Suzuko Tamura zen, gaur egun ohorezko euskaltzaina"

Japoniarrek Euskal Herriari buruz informazio gehiago izan dezaten, liburua ari zara prestatzen.

Duela bizpahiru urte halako liburu bat idazteko eskatu zidaten, baina nahiko alferria naiz, eta oraindik ez dut bukatu [irri egin du]. Ez naiz kontent Euskal Herriari buruz japo-

nieraz idatzitako liburuekin. Urte honen amaieran edo hurrengoaren hasieran prest izango dugula espero dut.

Nagoyako unibertsitatean ikastaroa ematen duzu. Zer lantzen duzue?

Nortasuna, euskal diaspora politikoa eta lurraldetasuna dira gai nagusiak. Japoniako Gobernuren laguntza jasotzen dugu, baina ofizialki ezin dut Euskal Herriari buruzko gai bat eman. Horregatik, diaspora hitza erabiltzen dugu, nolabait ezkutatzeko ikastaroaren benetako izaera zein den.

Japonian japoniera da hizkuntza nagusia, baina badira beste hizkuntza batzuk.

Hemen badira bi hizkuntza komunitate nagusi. Japoniako iparraldean ainu herriak dira. Haien hizkuntzak ez du zerikusirik japoniarrarekin. Aditzaren deklinazioak euskararekin bezalakoak dira, eta XIX. mendeko hizkuntzalariek euskara eta ainueraren arteko harremana bazela esaten zuten. XX. mendeko amaieran lege batek haien hizkuntza eta kultura eskubideak bermatu zituen. Gaur egun, ainuen artean hizkuntza berreskuratzeko mugimendua bada, bereziki gazteen artean.

Bigarren hizkuntza komunitate nagusia beste muturrean dago, hegoaldean, Okinawan. Batzuek esaten dute hango hizkuntza japoniarraren dialektoa dela. Beste batzuek, berriz, hizkuntza independentea dela diote; nik ez dakit zeinek duen arrazoia. Historikoki, Okinawa kolonia moduko bat izan da, zanpatuta sentitzen ziren. Horregatik, betidanik haien sentimendua Japoniako irla nagusiaren kontrakoa izan da, eta haien hizkuntza salbatzeko mugimendua politikoagoa da soziala baino. ■



Babeslea: HABE

HABE
Helduen Alfabetatze
Berreuskalduntze Erakundea

105 euskaltegi
1.500 irakasle
39.000 ikasle

munduoro
euskaraz

www.habe.euskadi.net
www.euskara.euskadi.net

TALAIAN

Pobrezia kriminalizatu

Joan den astean, hainbat elkarte sozialek Administrazioaren asmoa salatu zuen, alegia, behartsuen (gazteen, etorkinen, emakumeen eta langabeen) giza eskubideak are gehiago murriztea. Krisi ekonomiko finantzarioak, banka handiak eta erakunde finantzarioek eragindakoak, gertaera horretan ardurarik izan ez dutenei ikaragarri eragiten die. Administrazio publikoak ez dira ausartzen bankari aberatsei eta enpresa handiei zerga bereziak ezartzen. Alabaina, sozietate-zerga jaistearen aldeko apustua egin dute. Aldiz, ez daukate lotsarik dagoeneko baxuak diren errenta sozialak jaisteko eta horiek eskuratzeko baldintzak gogortzeko.

EAEko Gobernua, PSOE eta PPren babesarekin, diru-sarreraren bermearen errentaz legeri berria ari da tramitatzen. Gizarte zerbitzuez baliatzea zailduko du horrek. Diote, EAEko gizarte babeserako sistemak beheka jo duela, 55.000 hartzaileentzako 400 milioi euro erabiltzea ez delako eramangarria aurrera begira. PSOEri eta PPri ez die axola kopuru hori baino gehiagokoak enpresariei zergetan barkatzea. Ahulenei erasotzen diete: pobreei eta baztertutakoei. Bostetik bat!

Kutxa publikoetan dirurik ez dagoela diote. Zati eder bat non dagoen badakite: paraiso fiskaletan eta zerga fiskalengandik ihes egiten dutenen saketan. Eta badakite nondik atera: bankari, bankariei, enpresariei eta fortuna handiei zama fiskal handiagoak ezarri, eta paraiso horiek eta ihesian dabiltnak jazarri. Pobreen, gazteen, emakumeen, etorkinen eta baztertuen eskubideak murriztea pobrezia kriminalizatzea da.

Juan Mari Arregi



Aditzak.com



GARIKOITZ KNÖRREK abiatutako egitasmoa da *aditzak.com* webgunea. Euskal aditz laguntzailea jokatzeko tresna prestatu du eta adizki egokia aurkitzen laguntzen du.

Aditzaren denbora, modua eta mota aukeratu behar dira eta tresna berak ematen du adizki forma egokia. Garikoitz Knörrek batez ere euskara ikasleentzat dela adierazi du, baina euskararen profesionalak ere balia dezakete edozein zalantza izanda. Knörrek dioenez, aditzen paradigmak ez ditu ordezkatzeko sistema honek. Paradigmek aditz taulak osorik erakusten dituzte eta tresna honek adizkiak banaka aurkitzen laguntzen du. Hikako formak eta aditz trinkoak kontsultatzeko aukerarik ez dago oraindik, baina zerbitzu hori ere eskaintzeko asmoa dauka Knörrek.

Seaskaren aldeko futbol partida

URRIAREN 31N, Donibane-Lohizuneko (Lapurdi) Kexiloa zelaian, arratsaldeko 18:00etan, euskal futbolari ohi andana jokoan ikusteko aukera izango da. Seaskak, Iparraldeko ikastolen federazioak, Euskal Futbolaren Festa antolatu du ikastolak diruz laguntzeko. Ipar Euskal Herriko taldea eta Hegoaldekoa arituko dira norgehiagokan. Ondokoek jokatuiko dute, bestek beste: Aitor Larrazabal, Ismael Urzaiz, Bittor Alkiza, Iñigo Idiakez, Franc Histiollas, Mikel Loinaz, Xavier Legaz eta Nicolas Benert. Hegoaldeko jokalariek hautatzeko arduradunak Jose Angel Iribar eta Xabier Exposito izan dira eta Iparraldekoak hautatzeko Daniel Oronoz eta Christian Sarra magna.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php



ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



BIZKAIA
BIZIA



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

PELLO ZUBIRIA

Aberatsek daukate jende txiroak ez ikusteko antzea

Etorkizuna zein beltz datorren ohartu direnean, jendeak hasi dira norbere burua babesteko elkarri fidakaitz begiratzan, enplegu, etxebizitza eta eskola baten atzetik lehiakide direlakoan. Langileak sakabanatu, isolatu eta beren arteko txiroenen kontra haserrarazi, horra munduko nagusiek aspalditik arrakastaz landu izan duten estrategia.

LANGABETUAK ESNE-MAMITAN BIZI dira, pentsatuko zen 2006ko irailan *Le Point* astekari frantsesean hau irakurri zuenak: “Oinarritzko errenta kobratzen duenak horrez gain lortzen du zor fiskalen ordainketa gelditzea, etxebizitzaren zerga kentzea, Seguritate Sozialari ez ordaintzea, osasun zerbitzuak doan eskuratzea, Eguberriko paga, telefono tarifa berezia, garraioetako hobariak, museoak doan bisitatzea eta beste hainbat laguntza gehiago”.

Artikuluak txistea iduri luke, gertatuko ez balitz *Le Point* eskuindarra- ren ugazaba François Pinaultek bere jabegoan daukala urtean Frantziak Oinarritzko Errentan gastatzen duen diru guztia baino gehiago, 11.500 milioi dolar.

2010ean *The Economist* astekariak honela laburbildu zuen dotrina: “Langabetuak berriro lanera behartzeko bi modu daude. Bata da deserosoago eta prekarioago egitea langabezia saria irabazten dutenen bizimodua; bigarrena, enplegu bilaketa efikaz eta eragingarri bihurtzea”. Krisitzarrarekin bigarrena, lanpostu berria lortzeko itxaropena, haizeak eraman duenez, eman egurra erruki barik xomaian denari, bizi-rauteko laguntza sozialaren beharrean denari. Edozein ostatuan entzungo dituzu antzekoak gaur.

Le Monde Diplomatique aldizkariak

berrikitan *L'Art d'ignorer les pauvres* liburuxka plazaratu du, ironiaz eta umore beltzez beterik, John Galbraith-en, Laurent Cordonnier-en eta Jonathan Swift klasikoaren testu labor banarekin.

Ironia darabilten testuak hautatu ditu Halimik, erregistro horrek errealitatea ulertarazten duelakoan, aldi berean saihestuz haserre itxurak eta malko potolo ustelak. Munduko nagusiei dei moralak egiteak ez du zentzurik, dio Halimik. Aski aberats, jakintsu eta bizkorak badirenez, jakinaren gainean defenditzen dute beren mesederako eraikitako filosofia, hau alegia: aberatsek lanpostu gehiago sortuko lituzkete zerga gutxiago kobratuko balitzaie, eta pobreak lan gehiago egingo lukete subsidio gutxiago emanez gero.

Laurent Cordonnierren *Economistes en guerre contre les chômeurs* 2007ko testua da. Bertan ederki azaltzen du nola estutzen dien zintzurra Estatuak –nagusiki Frantziak ari da– langabeei eta laguntza sozialen beharrean direnei, bakan batzuek egindako desmasien gain kontrola zorrozteko aitzakiatan. Eskandalagarria da txiro horien gainera inspektzioa, alderatuta enpresa handiek eta aberatsek beren betebeharrak konplitzeko aurkitzen duten patxadarekin.

Alabaina, Cordonnierrek dioenez, herritarren gehiengoa dago abera-

Pierrechanteois bloetik hartutako irudian etxerik gabeko gizon gaztea ikusten da Europako hiriren bateko kalean. Soinean daramatzen jantzietan nabari zaio nomada bizitzera hein batean egokitu dela, edo egokitzen lagundu diotela. Argazkiak titulu esanguratsua darama: *La pauvreté est un encombrement !* (“Txirotasuna zama bat da” esan genezake euskaraz, edo baita ere “oztopoa” edo “lata bat” dela). Pobreen haurrak adin horretaraino iritsi eta zama bihur ez zitezen, Jonathan Swiftrek proposatu zuen guraso txiroek saldu zituzten adin jakin batean jakitarako, aurretik ondo bazkatuta: prezio ona kobratuko lukete gurasoek, hauek irabazietan pentsatuz hobeto haziko lituzkete, ekonomian dirua mugituko litzateke, eta jaioberrioi barkatuko litzaieke miseriaz eta bortizkeriaz betetako bizitza latza. Swiftrek salatzen duenez, beti egon dira soberan behartsuak.

tsen jomugan. Soldatapekoak zatitu nahi dituzte, klasea xerratan ebakita hobeto menperatzeko. Gutxien antolatuta dagoen zatiari ekin diote estreina, langabetuei eta etorkinei, gutxienik horiek daudelako antolatuta. Bukaerarako lagako dute atalik egoskorrena, sindikatueta dagoena. Denek inbidia dioten langile multzo hau isolatuko dutenean, aliatuak gabe, noiz arte iraungo dute ugazabek, gobernuak eta komunikabideek “pribilegio” izendatu dituzten esku-bideak galdu gabe?

Pobrekumea burduntzian erreta

Sozialdemokrata askok aldarrikatu izan duen John Kenneth Galbraith-ek (1908-2006) *How to get the poor off our conscience* (Nola atera txiroak gure kontzientziatik) artikulua 1985ean *Harpers* aldizkarian plazaratu zuen. “Zenbait gogoeta azaldu nahi ditut gizakion ariketarik antzinakoenetakoa den honetaz: urteen eta mendeen poderioz erabaki dugu jende txiroekiko kontzientzia txarrik gabe bizitzea”.

Bibliak proposatu ei zien pobreei mundu honetan lasai sufritzea, hil ondoren ondo sarituak izango omen direlako. Baina Ilustraziotik aurrera erantzun arrazoizkoak behar genituenez, David Ricardo-k eta Robert Malthus-ek XIX. hasieran argudiatu zuten pobreak ume



tan eta ez zure ingurukoetan. Heriotzarekin egiten dugun gisan, bide batez esanda.

Egiari uko egiteko metodo horien aurrean Galbraithen aldarrikatu zuen errukia, bestela ezin delako modu zibilizatuan bizi. Eta ironiaz bukatzen zuen esanez errukia interesatu beharko litzaiekeela batik bat kontserbadoreei; beharrak aseta bizi direnek ez dute matxinadarik sortuko, eta bake soziala ez al da kontserbatzaileek ororen gaintetik maite dutena?

Gulliverren bidaiak asmatu zituen Jonathan Swift duela hiru mende, 1729an, plazaratu zuen *A modest proposal*, 1980an *Xaguxarra* aldizkariak eman zuena I. Zubiria batek euskaratuta. Interneten dago irakurgai, Susaren *Armiarma* proiektuan. Apez irlandarrak proposatzen zuen eskean zebiltzan eta oro har lurrik gabe miserian bizi ziren baserritarren umeak saldu eta jatea, “estofatua zein errea, labean zein eosia, eta ez dut dudarik egiten, berdin balioko duela saltsan edo gisatuan”. Gordina benetan.

Umore beltza muturreraino eraman zuen Swiftek, kalkulatu urtean ehun mila ume pottolo kontsumitu ahal izango zirela, batik bat lurjabe handien mahaian baina baita ostatuetan ere, horrela konponduz beren guraso behartsuen eta nazio osoaren larrialdi ekonomiko eta soziala. Satira odoltsua baino bide hoberik ez zuen aurkitu Swiftek garai haietan Irlandako baserritarrei egiten zitzaizen zampaketa basatiaren aurka aldarri egiteko. ■



gehiegi egitearen erruz bizi zirela hain txiro.

Herbert Spencerrek, berandua-go, *darwinismo soziala*, asmatu zuen: egoera bakoitzean indartsuenak bizirauten dutenez, pobreen eliminazioa da giza arrazak hobetzeko naturak ezarritako legea. XX. mendean John D. Rockefeller txit aberatsak horri helduko zion: “Ezin da lortu *American Beauty* arrosa eder eta usaintsu bat inguruan sortzen zaizkion lehenbiziko kimuak sakrifikatu gabe. Ekonomian berdin gertatzen da, naturaren eta Jainkoaren legea horixe da”.

Galbraithen zahartzaroko artikuluhonetan zehaztu zituen behartsuak kontzientziako kargatik kentzeko lau mekanismo oso zabaldu,

eta banan bana haien arrazoirik eza erakutsiz. Lehena, Estatuaren eta bere funtzionarioen erruz ugaritu direla. Bigarren mitoa, jende txiroei laguntzea beren kalterako dela, lanpostu onetatik aldentzen dituelako, desmoralizatuz, alferreneri aukerak emanez. “Ez dago horren froga bakar bat ere baina (...) ameskerien artean hau da eragin zabalena duena”, dio Galbraithen.

Hirugarren mitoa, txiroei laguntzen badiegu askatasuna kentzen diegu, pobre izateko askatasuna. Behartsua ohartuko ez balitz bezala justu bere ezintasunetan datzala askatasun gabezia nagusia. Eta aurreko mitoei balio ez balute, laugarren metodoa gelditzen da: ez pentsatu pobreetan, ez Etiopiakoe-



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Bake garaia, herriaren garaia



TAK behin betiko armak utziko dituela iragartzearekin batera, bukatu da Euskal Herriaren historiako kapitulu bat. Ahaztu behar ez den kapitulua, baina gizarteak aspaldi amaitu nahi zuena. Iritsi da eguna eta orain, bakeaz hitz egiten hasi behar da.

Bakea, herdoilak janda dagoen hitz hori, berriz erabilgarria izan dadin garbitu eta edukiz bete behar dugu. Bakea helburu politikoak lortzeko biolentziarik ez erabiltzea baita; baina bakea da gatazka politikoa dagoela onartzea ere; bakea da konfrontazioak ekarritako sufrimendu oro desagertzea, eta bakea da eskubide zibilak eta politikoak herritar guztientzat berdinak izatea. Eta herritarrek euren etorkizuna askatasunez erabakitzea, hori ere bakea da. Berba bakarra eta hamaika esanahi: horiei guztiei gorputza ematea denon zeregina da, eta ARGIA egiten dugunok, euskarazko hedabideetan dihardugunok oro har, erronka berezia izango dugu datozen urteetan hitza janzten.

Ateak zabaltzeko tenorea da. Gure historia hurbilak utzitako lezioak ezin dira ahaztu irekiko den garai politiko berrian. Azken bi mendeetan Euskal Herrian izan diren gatazka armatu guztiek ezaugarri berdina dute: armak isiltzean ez dela bakerik izan, alde baten garaipena eta bestearen porrota baizik. Iragana garbi mintzo da horretaz, garaileen eta galtzaileen jokoek odol erreka berriak ekartzen dituzte-eta beti. Hori ez errepikatzeke abagune historikoa da oraingoa. Inoizko aukerarik onena, beharbada. Tresnak eskura daude: elkarrizketa eta negoziazioa. Horiek erabiliz denek irabaziko duten egoera sortzea da helburua, behar diren neurri guztiak hartuz. Borondatea da ate hori ireki dezakeen giltza bakarra.

Tartean, lan eskerga geratzen da azken hamarkadotako gatazka bortitzak pilatutako ondorioak gozotu eta konpontzeko. Sufrimendu asko eta handia egon da alde guztietan, oraindik odoletan dirauen sufrimendua. Egoera berriak zaharra gainditu dezan, min horiek arindu eta sendatzea ezinbestekoa izanen da, eta berriro gerta ez daitezen neurri eta berme garbiak ezartzea.

Eta abertzaletasunak, zer? Oztopo gaindiezin bilakatu zen ETaren jarduna familia abertzaleen eta oro har euskal herritarren erabakitze ahalmena defendatzen duten jendeen arteko gutxieneko adostasuna lortzeko. Orain konfiantzaz ekin behar diote alderdiek Euskal Herriaren subiranotasunaren aldeko elkarlanari, luzamendutan ibili gabe, sortuko diren unean uneko desadostasunak inteligentzia politikoz maneiatuz. Handia da beharra (hitzaren bi zentzuetan). Are handiagoa ordea, irabazteko dagoena.

Guztiaren gainera, herritarrek profitatu beharko dute momentua euren kezka eta aldarriak entzunarazteko, biharko Euskal Herriak, bestelako Euskal Herri horrek, erabateko aitortza edukitzeko urratsak emateaz gain, justizia soziala eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna izan ditzan ipar, etorri berri direnek eduki ditzaten bertan jaiotakoen eskubide berberak, kontzientzia ekologikoa sakon errota, irakaskuntza eredu aurrerakoa, kultura berritzailea eta euskara eguneroko zeregin orotan normalizatu.

Orrialdea pasatzera goaz, kapitulu bat fini da azkenik eta hurrengo hasiko da. Ez da kazetarien lana etorkizuna igartzea. Egunerokoa kontatzea, aztertzea, interpretatzea dira prentzalarion ohiko zereginak. Baina gauza batez seguru gaude: datorrena datorrela ARGIAK hor izan nahi du, gertatuko diren gorabehera guztien berri ematen, zubigintzatik, sakontasunetik eta independentziazatik.





Garaileen eta galtzaileen jokoek odol erreka berriak ekartzen dituzte beti. Hori ez errepikatzeke abagune historikoa da oraingoa. Inoizko aukerarik onena, beharbada. Tresnak eskura daude: elkarrizketa eta negoziazioa. Horiek erabiliz denek irabaziko duten egoera sortzea da helburua, behar diren neurri guztiak hartuz.



ASTE HONETAKO

zozketa



Urbano Jatetxea

Afaria 2 lagunentzat

Abuztuaren 31, 17
Donostia GIPUZKOA

www.restauranteurbano.com

1



AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN


Donostiako Aquiriuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Iruñeko Planetarioa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3



Artez euskara zerbitzua

2011-2012

4 ikasle agenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



Okatxu

5 kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2294. Argia)

ONDARRE Landetxea

- Jon Artano Izeta (Zestoa)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

- Aitor Goia Eskudero (Lizarrar)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Bergarako Udal Euskaltegia (Bergara)
- Aitor Duñabeitia Martin (Durango)
- Karmen Alvarez Yagüe (Donostia)

TOLOSA INDOOR KARTING

- Donibane Irrintzi aek Euskaltegia (Iruñea)
- Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)
- Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga (Donostia)

LIZEO AGENDA Artez Euskara Zerbitzua

- Jose Antonio Elorza Aranberri (Zarautz)
- Ane Agirre Arruti (Usurbil)
- Antonio Amondarain Aizpurua (Andoain)
- Iker Urkia Martinez de Lahidalga (Aretxabaleta)
- Justo Ezenarro Mugaguren (Bilbo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



XABIER LETE GOGOAN

DONIBANE GARAZI

Pier Paul Berzaitz
Erramun Martikorena
Arantxa Irazusta
Anje Duhalde
Petti

Bertsolariak: Amets Arzallus eta Xabier Euzkitze

Gonbidatu bereziak: Etxamendi eta Larralde

Urriaren 29an
Donibane Garaziko JAI ALAI Pilotalekuan
21:00etan

Sarrerak salgai: 15 €

www.kutxa.net (901111411)

Donibane Garazi Herriko Etxea

Turismo bulegoak: Garazi - Maule - Hazparne - Donapaleu eta Baiona

Antolatzailea:

